

Edizioa: Vitoria-Gasteizko Udala

Argitaratzailea: Garapenean Laguntzeko Zerbitzua

Diseinua, maketazioa eta ilustrazioak: Erakunde komunikaziorako zerbitzua

LG:

2023ko martxo


AURKIBIDEA

1 SARRERA	4
1.1 Hirugarren Gida Plana	6
1.2 Gida Planaren aldia	6
1.3 Gida Planaren elaborazioa	6
1.4 Ikuspegia eta dokumentuaren egitura.....	7
2 PLANAREN TESTUINGURUA	9
2.1 Lege-esparrua, araudi-esparrua eta esparru instituzionala	10
2.2 Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren esparrua	11
2.3 Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzaren ibilbidea	12
2.4 Garapenerako Lankidetzaren Gida Planaren ebaluazioa 2016-2019	15
2.5 Tokiko lankidetzarako erronka berriak	16
2.6 Garapenerako lankidetzarako udal-eragileak.....	17
3 ESPARRU ESTRATEGIKOA	19
3.1 Helburua	20
3.2 Ildo estrategikoak	20
3.3 Zeharkako ildoak	23
3.4 Printzipio instrumentalak.....	25
3.5 Lehenetsitako sektoreak.....	26
3.6 Gasteizko Udalean Garapenerako Politiken Koherentziari ekarpena egitea	27
4 MODALITATEAK ETA PROGRAMAK	31
4.1 Garapenerako lankidetz.....	32
4.2 Ekintza humanitarioa eta larrialdikoa.....	36
4.3 Herritartasun globalerako hezkuntza	37
4.4 Sektorea indartzea	45
4.5 Administrazioa eta kudeaketa	47
4.6 Plangintza eta ebaluazioa	49

AKRONIMOAK

KU:	Kateatutako Urteko Proiektuak
SHHFE:	Saharako Haurren Harrera Familien Elkartea
AMVISA:	Gasteizko Udal Urak SA
GLO:	Garapenerako Laguntza Ofiziala
US:	Uraren eta Saneamenduaren Proiektuak
GLEA:	Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentzia
GLB:	Garapenerako Laguntza Batzordea
EAE:	Euskal Autonomia Erkidegoa
CEA:	Ingurumen Gaietarako Ikastegia
BM/KA:	Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua
GGKEK:	GGKE Koordinakundea
GPK:	Garapenerako Politiken Koherentzia:
GJPK:	Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentzia
GE	Giza Eskubideak
GEH:	Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza
DBH:	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
LAF:	Larrialdietarako Arabako Funtsa
INFO@OD:	Espainiako Gobernuaren Garapen Ofizialerako Laguntzaren Informazioa
ELGE:	Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
GJH:	Garapen Jasangarriaren Helburuak
LNE:	Lanaren Nazioarteko Erakundea
GKE:	Gobernuz Kanpoko Erakundea
GGKE:	Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundea
NBE:	Nazio Batuen Erakundea
HNTP:	Haur eta Nerabeen Tokiko Plana
PT:	Proiektu Txikiak
GBH:	Garapen Bidean dauden Herrialdeak
SEAD:	Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa

1 SARRERA



1.1 Hirugarren Gida Plana

Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzaren 1988an sortu zen, udalak ohiko diru-sarre-
ren % 0,7 bideratzea erabaki zuenean. Hala ere, 2010era arte udalak ez zuen lehen Gara-
penerako Lankidetzaren Gida Plana onartu, 2010-2013 aldirako. 2014an luzatu zen izatez.
Bigarren Gida Plana 2016-2019 aldirako onartu zuten eta izatez 2021era arte aplikatu da.

Hirugarren Gida Plana egiteko arrazoia arlo horretan udal-ekintza bideratzea da, eta uda-
leko garapenerako lankidetzaren esku hartzen duten eragileei aurreikuspenak eskaintzea
berriro ere, esparru-estrategia eta garatuko diren modalitateak eta programak adieraziz
zehazki.

1.2 Gida Planaren aldia

Garapenerako lankidetzaren egun berrorientazio orokorreko unean dagoela aintzat hartuta,
Gasteizko Udaleko hirugarren Garapenerako Lankidetzaren Gida Planak lau urteko aldia
izango du, 2022-2025.

Horrek esan nahi du, alde batetik, planak udalak garapenerako lankidetzaren arloan di-
tuen konpromisoak jasotzen dituela, eta erakunde batzuekin egindako protokoloetan edo
hitzarmenetan jaso direla. Horiek 2023, 2024 edo 2025erako indarraldia dute.

Bestalde, urte anitzeko proiektuen ziklo berriak hasteko beharraren ondorioz, 2022ko
garapenerako lankidetzaren dirulaguntzen deialdietan, plana ofizialki onartu aurretik argi-
taratutakoetan, Gida Planaren alderdi estrategikoak eta 2023tik 2025era bitartean egingo
diren proiektuen aurre-aukeraketarako mekanismoak txertatu dira.

6

1.3 Gida Planaren elaborazioa

Hirugarren Plan hau egiteko aurrekaria aurrekoaren ebaluazioa izan da. 2020ko irailaren
eta 2021eko maiatzaren artean egin zen aurrekoa eta bi produktu sortu zituen: Ebalua-
zioa Txostena eta "Etorkizuneko Gida Planerako Gidalerroak". Ebaluazio horren oinarria
planean lankidetzaren aritu ziren GGKEi eta tokiko zein herrialde hartzaileetako bazkideei
egindako galdetegiak eta elkarrizketak izan ziren, bai eta udal-langileei eta adituen ko-
puru txiki bati egindakoak ere.

Bestalde, Gida Plana egiteko prozesu parte-hartzaile bat egin da Garapenerako Lankide-
tzarako Elkargunearen esparruan, bost lan-saioren bitartez. Hasierako saioan, egituraren
proposamena, iragankortasuna eta aurrekontuen hipotesia eztabaidatu ziren. Gero, hiru
tailer egin ziren: lehenengoak planaren alderdi estrategikoak eta ikuspegia jorratu zituen,
bigarrena arloko lankidetzarako mekanismoetan oinarritu zen eta hirugarrena, herritar-
tasun globalerako eta komunikaziorako sentsibilizazioan eta hezkuntzan. Halaber, Gara-
penerako Lankidetzaren Zerbitzuarekin elkar eragiteko beharra duten sailekin eta udal-
zerbitzuekin proposamenak trukatu dira eta horien konpromisoak jaso.

Hortik ateratako zirriborroa 2022ko irailaren 15ean elkargunearen saio batean aurkeztu zen eta, gero, elkarguneko kideek eta udaleko alderdi politikoez hainbat xedapen proposatu zituzten testurako. Behin betiko dokumentua idazteko garaian, kontuan hartu dira horiek.

1.4 Ikuspegia eta dokumentuaren egitura

Gida Plana 2022-2025 aldirako garapenerako lankidetzarako politikak zehazten dituen dokumentua da, eta ildo estrategikoak aurkeztu eta aldi horretarako aurreikusitako jarduketaren modalitateak zehazten ditu.


Lehen zatiak, “Testuinguruak”, garapenerako udal-lankidetzarako aplikagarria den lege-esparrua eta Agenda 2023k eta Garapen Jasangarrirako Helburuek zehazten duten esparrua jasotzen du. Labur azaltzen du udalak garapenerako lankidetzaren arloan egin duen ibilbidea, bai eta aurreko Gida Planeko ebaluazioaren ondorio nagusiak ere. Halaber, gure udal-lankidetzak aurre egin beharreko erronka batzuk aipatu ditu.

Bigarren zatiak, “Esparru estrategikoak”, Gida Planaren ikuspegia, ildo estrategikoak eta zeharkako ildoak jasotzen ditu, bai eta tresna nagusiak eta lehenetsitako sektoreak ere. Horrez gain, planak garapenerako politiken koherentziari zer ekarpen egin diezaiokeen jorratzen du.

Hirugarren zatiak, “Modalitateak eta programak”, Euskadiko Lankidetzaren Publikorako Atariaren informazioa egituratzen duten sei modalitatearen arabera aurreikusitako jarduketak antolatzen ditu. Garapenerako lankidetzaren Gizarte-ekintza eta larrialdia, Herritartasun globalerako hezkuntza, Sektorea indartzea, Administrazioa eta kudeaketa eta Plangintza eta ebaluazioa.



2 PLANAREN TESTUINGURUA



Atal horrek garapenerako udal-lankidetzaren erregulatzen duen araudia jasotzen du, Agenda 2030eko eta Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH) erreferentzia egiten die, Gasteizko Udalak garapenerako lankidetzaren duen ibilbidea labur errepasatzen du eta aurreko Gida Planaren ebaluazioaren ondorio nagusiak laburbiltzen ditu. Azkenik, egungo erronketako batzuk aipatzen ditu.

2.1 Lege-esparrua, araudi-esparrua eta esparru instituzionala

Garapenerako lankidetzari egun aplikagarri zaion legeria hauetan oinarritzen da:

- 1998ko uztailaren 7ko Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko Espainiako 23/1998 Legea,
- 2007ko otsailaren 22ko Garapenerako Lankidetzari buruzko Euskadiko 1/2007 Legea.

Bat berak ere ez du ditu mugatzen udalek garapenerako lankidetzaren dituzten eskumenak, ezta jarduteko irizpideak edo jarraibideak zehaztu ere, Gainera, biak berrikusteko prozesuan daude. Espainiako Gobernuak “Garapen Jasangarrirako Lankidetzarako eta Elkartasun Globalerako Legea” aurreproiektua onartu zuen 2022ko urtarrilaren 11n, eta Lankidetzarako eta Elkartasuneko Euskal Lege berriaren aurreproiektua ere tramitatzen ari dira.

Espainiako eta erkidegoko legeak onartzeko prozesua amaitu arte, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, da udaleko garapenerako lankidetzaren kudeaketan in-tzidentziarik handiena duena. Estatuko Administrazioak ematen dituen garapenerako lankidetzaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretua kontuan hartuta, dekretua gehiago egokitzen da udaleko lankidetzarako kudeaketara Dirulaguntzen Legearen literaltasuna baino. Gasteizko Udalak dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarri orokorretan definitu du “garapenean dauden herrialdeetan egin beharreko ekintzei bideratzeko dirulaguntzak justifikatzeko araudi-esparrua” dekretu hori dela, eta zehazki, I. tituluaren aurreikusitakoa: “Publizitatearen eta konkurrentziaren printzipioen baitan dauden garapenerako nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzak eta laguntzak”.

Bestalde, 2022-2024 aldirako Gasteizko Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntzen bi ildo espezifiko jasotzen ditu: “Garapenerako lankidetzarako ekimenentzako eta proiektuentzako laguntza” eta “Garapenerako sentsibilizazio- eta hezkuntza-ekintzetarako laguntza”.

Udalerriaz gaindiko plangintzei dagokienez, 2018-2021 aldirako Espainiako Lankidetzarako V. Gida Planak, “Eragileak eta Aliantzak”, Tokiko Erakundeek Espainiako Garapenerako Laguntza Ofizialean (GLO) duten garrantzia aitortu du, eta aipamen orokorrak egiten dizkio administrazio publikoen arteko koordinaziorako tresna orokorrei, udalerrien arteko tresnen sustapenari eta erkidegoko eta tokiko gaitasunak hobeto aprobetxatzeari. Hala-ber, herrialde kideetako tokiko erakundeek arloetan duten zeregina nabarmentzen du. Hala ere, hori ez du udalei zuzendutako lan-ildo edo -programa batek ere gauzatu.

Euskadin, 2018-2021ko Garapenerako Lankidetzarako IV. Gida Planaren 5. Atalak, “Jar-duketa estrategikoaren ardatzak” izenekoak honako hau dio: “Euskadiko administrazio publikoen arteko garapenerako lankidetzarako politiken artikulazioa, koordinazioa eta osagarritasuna erronka da oraindik ere”. Alde horretatik, Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziak (GLEA) konpromisoa du espazio horretan dinamizatzailaren zeregina gauzatzen jarraitzeko, nahiz eta lidergo partekatuak bereganatzen joan”. Aldi horretan, Garapenerako Lankidetzarako Erakundeen Arteko Batzordeak erregularitasunez funtzionatu du, batez ere arlo teknikoan, eta ekimen bateratu garrantzitsuak garatu ditu, hala nola Euskadiko Lankidetzaren Publikoaren Ataria, (H)abian Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzaren Estrategia eta Euskadi – Erdialdeko Amerika Uren eta Saneamenduaren Lankidetzarako Erakundeen Arteko Programa, egun AKUAL izenekoak. Horrez gain, Eusko Jaurilaritzak hainbat mailatako erakundeak inplikatu ditu etorkizuneko Lankidetzaren eta Elkartasuneko Euskal Legea definitzeko prozesuan.

2.2 Garapen Jasangarrirako 2023 Agendaren esparrua

Garapen Jasangarrirako 2030eko Agenda NBEko Batzar Nagusiak onartu zuen 2015eko abuztuaren 12an.

Agenda garapen jasangarriak dituen erronka handien diagnostikotik abiatzen da. Alde batetik, dimentsio sozialean, azterketak honako hau gogorarazten du:

Gure mila milioika biztanlek pobrezian jarraitzen dute eta bizitza duinik gabe. Desberdintasunak areagotzen ari dira, bai herrialde barrukoan, bai herrialdeen artean. Aukerei, aberastasunari eta botereari dagokienez, desberdintasun handiak daude. Generoen arteko desberdintasunak funtsezko erronka izaten jarraitzen du. Oso kezagarria da langabezia, batez ere gazteen artean. Osasunerako munduko arriskuak, hondamendi naturalen maiztasuna eta intentsitatea areagotu izana, gatazken igoera, indarkeriazko estremismoa, terrorismoa eta ondorioz sortzen diren krisi humanitarioak, eta herritarren behartutako lekualdatzeak mehatxua dira azken hamarkadetan lortutako garapenerako aurrerapen askoentzat.

Bestalde, agendak adierazten du gizarte askoren biziraupena eta planetaren biologia eusten duten sistema askorena arriskuan dagoela, aurrean ditugun ingurumeneko erronka handiak direla eta, eta garapen jasangarria lortzeko herrialde guztiek duten gaitasuna urritzen dute: baliabide naturalak agortzea, ingurumenaren narriaduraren ondorio negatiboak, eta klima-aldaketa eta horren ondorioak, hala nola tenperatura orokorra igotzea, itsasoko maila igotzea eta ozeanoak azidotzea.

Erronka horien aurrean, agendak Garapen Jasangarrirako 17 Helburu (GJH) eta bere 169 xede zehazten ditu, “mundua eraldatzeko” helburuarekin eta “inor atzean ez geratzeko” promesarekin.

Agenda 2030eko 17.2 xedeak nazioarteko konpromiso hau berresten du: “Garatutako herrialdeek garapenerako laguntza ofizialaren arloan dituzten konpromisoak erabat betetzen dituztela zaintzea, garatutako hainbat herrialdek diru-sarrerara nazional gordinaren % 0,7 garapenean dauden herrialdeentzako laguntza ofizialerako bideratzeko helburua barne...”.

Bestalde, 17.14 helburuak “Garapen jasangarrirako politiken koherentzia hobetzea” agintzen du, ELGEk kontzeptu hori definitzen duen terminoetan¹.

Agenda estatuek sinatu dute eta estatuko politikari egiten die erreferentzia funtsean; beraz, preskripzioak ezin dira automatikoki tokiko erakundeetara eraman. Hala ere, ahalegin handia egin da tokiko politikak GJHein bateratzeko edo lotzeko.

Gasteizko Udalaren kasuan, ahalegin hori islatuta geratu da 2030erako Hiri Agendaren Ekintza Plana onartu zenean 2022ko irailaren 13an eta urriaren 21ean Gasteizko udalbatzak ahoz batez onartutako “Gasteizko 2030eko Hiri Agenda babesteko Adierazpen Institutuzionala (AU2030VG) - Gasteizko Estrategia 2030” adierazpenak berretsi egin du. Adierazpen horren barruan garapenerako lankidetzarekin lotutako helburu espezifikoko bat dago jasota:

“10.5 Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat egiten duen garapenerako lankidetzazartzea”.


Halaber, Ekintza Planaren 88. Ekintzak erreferentzia egiten dio Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentziaren printzipioaren ezarpenari. Alderdi horri ekarpena egin diezaioke garapenerako udal-lankidetzak, batez ere garapenean dauden herrialdeetan eragina duten politiken arloan.

2.3 Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzaren ibilbidea

1988an, Gasteizko Udalaren Osoko Bilkurak aurrekontuaren % 0,7² garapenerako lankidetzara bideratzea erabaki zuen. Erabaki horrek udalerriko lankidetzaren hasiera markatzen du, bai Gasteizen, bai Espainia osoan. 1995ean, Udalbatzak lankidetzara bideratutako ehunekoa % 1era igo zuen. Hala ere, 2005etik aurrera, ehuneko hori murriztu egin da eta 2011-2016 aldian gorabehera handiak izan zituen. 2016tik aurrera, zenbatekoa egonkor mantendu da, % 0,7 baino apur bat beherago.

¹ Ikusi 3.6.1. atala

² Udalaren aurrekontuko diru-sarrereri buruzko 1-5 kapituluetakoko baturaren gainean kalkulaturako ehunekoa, hau da, ohiko diru-sarreraren guztizkoaren gainean.



2022an, Garapenerako lankidetzarako udal-aurrekontua 2.669.907,40 eurora igo da.

Hiru hamarkada baino gehiagotan, garapenerako lankidetzaren diseinua eta gauzatzea bateratua izan da Espainiako udal guztientzat (ezaugarri espezifikoeekin), eta erreferentziazkoa izan da bai Euskadin, bai estatuan. Ibilbide hori honela laburbildu daiteke:

- Udaleko lankidetzaren bultzatu duten printzipioak elkartasuna eta giza eskubideak izan dira.
- Laguntza ekonomikoa izan da funtsean, Garapenerako Laguntza Ofizialerako 66 milioi euro inguru eman dira –1988tik 2021era–.
- Lankidetzaren Garapenerako GKEk (GGKE) bideratu dute gehienbat: % 87, 2016-2020 aldian. Ehuneko horren barruan daude immigranteen elkarte batzuek kudeatzen dituzten dirulaguntzak, eta horietako bik lankidetzarako proiektuak kudeatu dituzte modu sistematikoan.
- Dirulaguntzen deialdiak izan dira lankidetzaren kudeatzeko modalitate nagusia. 2016-2021 aldian lankidetzarako aurrekontuen bi heren kudeatu ziren bide horretatik: Nolanahi ere, bilakaera argia izan dute eta ezaugarri hauek finkatuz joan dira: proiektu-mota jakin batzuetarako deialdiak edo atal espezifikoei bereizten dira; hainbat urtetako proiektuak dira pisu gehien duten modalitatea; hainbat urtetako proiektuak identifikatzeko lanetarako dirulaguntzak eman daitezke. Berrikiago, proiektu-mota jakin batzuetarako proiektuen hautaketa-sistema ezarri da hiru fasetan: laburpen-dokumentuetatik abiatuta proposamenak aurrez hautatzea, aurrez hautatutako proiektuak formulatzen amaitzea eta behin betiko hautapena.
- Eremuko nazioarteko lankidetzaren arloan, GGKE batekin dagoen hitzarmen iraunkor bakarra SEADeko Lagunen Elkartearekin izandako hitzarmen-esparrua da, 1995etik 2020ra bitartean indarrean egon dena. Jarraipena eman zaio 2021-2024 aldirako sinatutako protokoloarekin.

- Beste udal batzuekin batera jarduteko eta udal izaerako lankidetzan sakontzeko nahia ere adierazi da Euskal Fondoa - Lankidetzarako Euskadiko Tokiko Erakundeen Elkartearen, 1996an sortu zenetik, eta elkarte horrek kudeatutako proiektuen lankidetzan, hitzarmen espezifikoa berruz.
- Gertuen dauden erakundeekin eta, bereziki, Arabako Foru Aldundiarekin koordinatzeko borondatea ere etengabea izan da. Larrialdietarako Arabako Funtsean islatu da hori bereziki. Larrialdietarako laguntzarako mekanismo bateratu eta espezifikoa da eta 2005etik dago funtzionamenduan.
- Mugatuak izan dira tokiko erakundeekin hitzarmen bidez egindako lankidetzako esperientzia zuzenak. 1995-2001 aldian egin ziren eta hein txikiagoan 2009-2011an, baina ez geroago.
- Bai proiektuen, bai jarduketa zehatzen berrikuspen teknikoan, Gasteizko Udaleko garapenerako lankidetzak espezializatutako hainbat udal-zerbitzuren laguntza izan du. Hori etengabe eta modu egituratuan gertatu da Gasteizko Udal Urak SAren (AMVISA) kasuan, baina baita Gizarte Politika Saileko zerbitzuen, Berdintasuna eta Gazteria Zerbitzuen, eta Lurraldearen eta Klimaren Aldeko Ekintzaren Saileko Plangintza eta Proiektuen Zerbitzuen kasuan ere.
- Era berean, lurraldeko hainbat eragile espezializatuk GGKEek gauzatutako proiektuetan parte har dezaten saiatu gara.
- GGKE batzuen jarduketa-ildoak, udal-zerbitzuen lankidetzak eta espezializatutako sektoreen arabera diru-laguntzen deialdien egituraketak zehaztu dute gure lankidetzaren sektoreko espezializazioa. Espezializazio hori oso markatuta dago uraren eta saneamenduaren kasuan, baina baita genero-berdintasunean, giza eskubideen babesean, gazteriaren politiketan, ekonomia sozialean eta solidarioan edo zaintzen politiketan ere.
- Hiriko espezializatutako GGKEkin lankidetzan, udala Bidezko Merkataritza sustatzeko ibilbidearekin hasi zen 2002an. Konpromiso hori Kontsumo Arduratsuen arloa zabaldu zen 2020an, erakunde horiek osatzen duten Zentzuz sarearekin protokoloa eta geroko hitzarmenak sinatuz. Erosketa publikoan Bidezko Merkataritza sartzeari 2015ko Sozialki Arduratsua eta Jasangarria den Erosketa Publikorako udal-gidalerroan dago jasota, baina instruzioa eguneratu ez izanak mugatu du, kontuan har baititzake erosketa publikoak garapen bidean dauden herrialdeentzat ondorioak izan ditzakeen beste eremu batzuk

2.4 Garapenerako Lankidetzaren Gida Planaren ebaluazioa 2016-2019

Ebaluazioa 2020 eta 2021 artean egin zen, Gasteizko lankidetzarako eragileekin, proiektuetako kontrako alderdiekin barne. Aldian zehar lankidetzaren xehetasunen ezaugarriak karakterizatzearekin batera, ebaluazioak adierazten zuen erronka asko zeudela hurrengo plana egiteko.

Jarduketa edo tresna jakinei buruzko erronkei dagokienez, hauek nabarmendu behar ditugu:

- **Garapenerako** lankidetzaren arloan: lankidetzarako hainbat urtetako jarduketetan hiriko eragileen parte-hartzea bilatzea, bai GGKEna, bai immigranteen kolektiboena, eta lankidetzaren beste ikuspegi eta kolaborazio batzuetara zabalduko duen dirulaguntzen erroak sortzeko aukera baloratzea.
- Ingurumeneko jasangarritasunarekin lotutako lankidetzaren erroa gehitzea, udalak arlo horretan duen nazioarteko aitortzarekin eta espezialitatearekin koherentzian.
- Migratzaileen kolektibo berrietara hurbiltzea, Udalaren dirulaguntza-tresnen bidez haien lankidetzaren ekimenak errazteko, eta tokiko GGKEkin sinergia berriak sortzea.
- Genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez: alde batetik, ikuspegi feministan sakontzea, eta, bestetik, proiektuen genero-inpaktu handiagoa ahalbidetuko duten jarraibideak eta estandarizatutako tresnak izatea. Horiek gauzatzeko deialdietan baldintza berriak egongo dira, generoaren aurretiazko azterketari edo ebaluazioari, emakumeen parte-hartzeari edo generoaren emaitzei eta bere neurketari dagokienez.
- Tokian tokiko proiektuen jarraipena eta ebaluazioa indartzea, ikasteko.
- Hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren arloan: hiriaren garapenerako eta sentsibilizazioarako hezkuntza-ekintzen inpaktua eta kalitatea sustatzeko formulak bilatzea, zehazki, udaleko beste arlo batzuekin dagoen koordinazioa hobetzea eta GGKEn eta beste eragileen arteko lankidetzaren sustatzea.
- Bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuen arloan: beste eragile eta erakunde batzuen parte-hartzea ahalbidetzea, hala nola kooperatibena, ekoizleen elkarteena, kontsumo-elkarteena, etab. Horrez gain, sinatutako hitzarmenean eta beste jarduketetan dagozkien udal-sailen laguntza eta inplikazio handiagoa izatea.
- Dirulaguntzen deialdietarako sarbidea erraztea, zehazki, erakunde txikiei. Horretarako, hizkera eta eskatzen den dokumentazioa erraztu eta tresnei eta prozedurei buruzko prestakuntzarako eta kontsultarako espazioak zabalduko dira. Oro har, dirulaguntzen kudeaketa sinplifikatuko da.

Ikuspegi orokorragotik, ebaluazioak erronka hauek ere aipatzen zituen:

- Aurreko planeko gidalerroen ildoen definizioak gehiago zehaztea, beren artean gainjartzea saihestuz eta beste kategoriatzat batzuetara joz, hala nola sektoreko lehentasunak, printzipioak edo ikuspegiak.

- Hirian lankidetzaren arloko komunikazioa eta proiektuen hedapena hobetzea.
- Udaleko beste sail eta zerbitzu batzuekiko koordinazioan sakontzea.
- Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko esparru estrategikoa definitzea eta plangintzetan modu bateratuan lan egitea.

Ebaluazioaren gomendioak bereziki hartu dira kontuan Gida Plan hau egiteko.

2.5 Tokiko lankidetzarako erronka berriak

Gasteizko Udalaren azken urteotako esperientzia zuzenak agerian uzten ditu zaugarritasun eta erronka berriak, eta zuzenean islatzen dira garapenerako tokiko lankidetzara bideratzen diren eskarrietan. Askok sakondu gabe, egoera batzuk aipatuko ditugu:

- Baliabide naturalen ustiapen basatiak edo nekazaritzako ekoizpen jasangaitzaren jarduketek eta eskala handian egindakoek habitatak eta ohiko bizimoduak suntsitzen dituzte, eta horren ondorioz sortzen diren lurraldearen kontrolarengatik gatazkek biztanleriaren lekualdatze behartu masiboak eragiten dituzte.
- Muturreko fenomeno meteorologikoek gero eta eragin handiagoa dute planetako eremu batzuetan, eta orain arte jendea bizi zen lekuetan bizirautea ezinezkoa bihurtu da edo jende asko bizi den lekuetan arrisku larriak sortu dira.
- Munduko osasun-arazoen aurrean gizateriak duen zaugarritasuna agerian geratu da.
- Kronifikatuta dauden gatazka armatuak ez dira konpondu eta gerra-agertoki berriak sortu dira.
- Giza eskubideen urraketak ez dira gutxitu, izan estatuak gauzatzen dituztenak, botere ekonomikoek, eragile armatu informalek edo oso errotuta dauden jarduketa kultural edo sozialetatik sortutakoak. Horiek emakumeei edo gutxieneko taldeei eragiten diete bereziki.
- Urraketa horiek bereziki mehatxatzen dituzte egoera horiek salatzen dituzten giza eskubideen eta lurraldeen defendatzaileak edo komunikabideetako profesionalak.

Egoera horiek guztiek erantzun egituratuak behar dituzte, eta, askotan, eskala handiko ekintza humanitaria. Horrek tentsioak sortu ohi ditu udalerriko lankidetzan, baliabideak mugatuak direlako, eta erantzun eraginkorrak ematea zaila delako, baina elkartasunak eta giza eskubideen eta munduko bidegabekerien arretan jarduten duten gizarte-sektoreen bultzadak sustatzen ditu.

Gainera, egoera horiek pairatzen dituzten milioika pertsonarentzat, sarri migratzea da, behartuta edo borondatez, bizirauteko aukera bakarra. Hala ere, mugak ixteko politikek gerarazi egiten dute migrazioa, herrialderik aberatsenetan batez ere. Horren ondorioetako bat da benetako gizarte-larrialdien agertokiak sortu direla, bai migrazioen aurrean tapoi gisa erabiltzen dituzten herrialdeetan, bai immigrazioa ekidin nahi duten herrialdeetan, eta zehazki Europar Batasunekoetan.

Garapenerako lankidetzatik, arazo horiek ez dira behar bezala lotzen baliabide gutxien dituzten herrialdeetako ezinbesteko ekintzarekin, eta horrek gure gizarteko sektore solidarioetatik urruntzen du, pertsona migratuaren eskubideen alde mobilizatzen baitira.

Aipatutako erronken eta mehatxuen neurria ez da udaleko lankidetzaren frustraziorako arrazoi izan behar. Nahiz eta kopuru ekonomiko mugatua duen, bere gaitasun instituzionalak eta tokiko beste eragile batzuenak mobilizatu ditzake, eta baita herritarrengan eragin ere. Horretarako, lehenik eta behin, lurraldetik lurralderako lankidetzaren egin beharko litza-teke, pertsonak, erakundeak, baliabideak eta ezagutzak mugitu ditzakeen sektore zehatzetan, eta bi lurraldeetan (hegoaldea eta iparraldea). Bestalde, udaleko lankidetzak arreta jarri beharko luke bereziki esku hartzen duten lurraldeetako giza eskubideen egoeran, baita migrazio-trantsizioetan ere, zuzenean eragiten dien horretan interes berezia jarritz. Azkenik, hezkuntza-ekintzak gizaterian dauden bidegabekeriei eta mehatxuei buruzko kontzientzia sortzeko ekarpena egin behar du, herritartasun globalaren eta garapen jasangarriaren ikuspegitik.

2.6 Garapenerako lankidetzarako udal-eragileak

Garapenerako lankidetzaren eragile askok ezarritako politika da, eta, lehenik eta behin, garapen bidean dauden herrialdeetako erakunde publiko edo pribatuekin egiten da, horiek baitira egindako ekintzen funtsezko pisua dutenak. Udalaren ibilbidean, erakunde horiek, lagundutako proiektuen kontrako alderdiak edo tokiko bazkideak, mota desberdinetako gobernu kanpoko erakundeak izan dira gehienbat, eta, neurri txikiagoan, herrialde jakin batzuetako tokiko erakunde publikoak.

Tokiko eremuan, udal-lankidetzarako eragile nagusiak helmuga-herrialdeekin lotura zuzena duten GGKEak izan dira. Horiek garapenerako lankidetzaren proiektuetan espezializatu dira eta nazioartean desberdintasunak murrizteko borrokari eta elkartasun-kultura sortzeari ekarpena egin diote.

Nolanahi ere, GGKEak printzipio berdinek inspiratzen dituzten arren, askotariko kolektibo heterogeneoa osatzen dute, alderdi hauek kontuan hartzen baditugu: beren izaera eta loturak, oinarri sozialaren eta sarearen dimentsioa, lankidetzako ikuspegiak, esku hartzeko eremu geografikoak, lankidetzako sektoreak eta gaitasun teknikoak, sentsibilizazioaren eta hezkuntzaren arloko gaitasuna, boluntarioak mobilizatzeko gaitasuna edo tokiko baliabideak.

Herritartasun globalerako lankidetzaren edo hezkuntza-ekimenak ere bultzatu dituzte beste gizarte-kolektibo batzuek, bereziki etorkinen elkarteek eta kolektiboek.

Gasteizko Udaleko lankidetzaren finkatuta dagoen beste eragileetako bat Euskal Fondon -Lankidetzarako Tokiko Euskal Erakundearen Elkarteak da, 1996an sortua. Egun, 106 udal-eragile, Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Arabako 10 administrazio-batzarrek osatzen dute. Udala Euskal Fondon kide sortzailea da eta erakundeak gauzatzen dituen proiektuen finantzazaileretako bat, kasu gehienetan, esku hartzen duen herrialdeetako tokiko udal-erakundeekin batera. Sare gisa, Euskal Fondon gogoetarako mahaia eta tokiko erakundearen koordinazioa ere badaramatza.

Halaber, udalaren zeregina ez da soilik dohaintzakoa edo finantzatzailea izan, garapenerako lankidetzako eragile aktiboaren papera hartu nahi izan du, eta horretarako hainbat udal-zerbitzu inplikatu ditu. Era berean, sentsibilizazioko edo hezkuntzako programak diseinatu eta abian jarri ditu, eta espezializatutako hainbat eragilek esku hartzen dute.

Zalantzarik gabe, Gida Plana indarrean dagoen aldian, GGKEak izango dira funtsezko eragilea, garapenerako lankidetzara bideratutako baliabide ekonomikoen kudeaketari dago-kionez. Baina baliabideak nork kudeatzen dituen edo eragile bakoitzak zenbat kudeatzen duen galderatik haratago, aitortu behar da lankidetzaren erronketako bat dela bai administrazioek, bai GGKE-ek, beste eragile batzuk mobilizatzeko gaitasuna izatea.

Jorratu beharreko erronken zailtasunaren eta dimentsioaren aurrean, eragile, talentu, gaitasun eta borondate guztiak dira beharrezkoak. Nahitaezkoa da norberak kontzientzia hartzea pertsonengan eta ingurumenean nolako inpaktua duen ikusteko, modu positiboan edo negatiboan, eta horren arabera jarduteko, pertsona guztientzako baldintza duin eta osasungarrien jasangarritasunerako ikuspegitik.

Gasteizko Udalaren esperientziak agerian uzten du espezializatutako eragileen lankidetzeta, bai udal-zerbitzuetako langileena, kolektiboetako edo gizarte-erakundeetako edo kooperatibetako teknikariena, bai pertsona edo erakunde profesionalena, eta lankidetzeta aberasteko aukera ematen du, esperientziak trukatzuz eta berdinen arteko ezagutzak sustatuz. Gainera, garapenerako lankidetzak eskatzen duen gizarte-oinarria indartzeko ekarpena egiten du.

18

Lankidetzeta deszentralizatuaren espezifikotasunari edo ekarpen bereizgarriari buruzko eztabaida teorikoetatik haratago, lurraldeko eragileen benetako mobilizazioa, publikoa, soziala edo pribatua izan, udal-lankidetzaren ezaugarri bereizgarri nagusietako bat izan behar da.

3 ESPARRU ESTRATEGIKOA



3.1 Helburua

Garapenerako lankidetzak bizitzaren jasangarritasunari, justizia sozialari eta inguramene-koari, desberdintasunak murrizteari, genero-berdintasunari eta elkartasunari ekarpena egin behar diola dioen premisatik abiatuta, Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Gida Planak helburu hauek ditu:

- Udaleko baliabideak, ekonomikoak, materialak edo giza baliabideak, mobilizatzeko garapenerako lankidetzaren egitea.
- Elkartasunaren, giza eskubideen eta gure hiriko herritartasun globalaren kultura sustatzea.
- Udalerriko baliabideak mobilizatzea eta garapenerako lankidetzarako aliantzak ezartzea.

3.2 Ildo estrategikoak

Gasteizko Udalaren Lankidetzarako Gida Planaren ildo estrategikoak Udalak garapen-lankidetzaren arloan ezartzen dituen lehentasunezko lan-ildoak dira, jarduera-modalitate guztietan. Galdera honi erantzuten diote: Zertan jardungo dugu lehentasunaren arabera?

3.2.1 Giza eskubideak eta justizia soziala

Ildo estrategiko horrek giza eskubideen kontzeptua jasotzen du bere zentzurik zabalean. Horrenbestez, eskubide zibil eta politikoak, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak kontuan hartzen ditu, eta berez lotuta daudela aitortzen du. Hortaz, ezinezkoa da garapenik izatea giza eskubiderik gabe, ezta giza eskubiderik ere garapenik gabe. Alde horretatik, giza eskubideak eta justizia soziala bereizezinak direla hartzen da abiapuntutzat.

Ondorioz, Gasteizko Udalak, Gida Planan lehentasuna ematen die pertsonen bizi baldintzen hobekuntzan, eta giza eskubideak errespetatzen dituen eta pertsonen, komunitateen, kolektiboen eta tokiko erakundeen gaitasunak indartzen dituen gizarte-ingurune bat sortzean oinarritutako garapeneraren kontzeptzioak inspiratutako ekintza eta ekimen guztiak.

3.2.2 Genero-berdintasuna

Ildo horrek Hara! IV. Berdintasun Planak jasotzen duen berdintasun-kontzeptua du, ikuspegi feministarekin: "Legearen aurrean pertsona guztien berdintasuna, aukera-berdintasuna, tratu-berdintasuna, berdintasun soziala, berdintasun politikoa eta sarbideetara, ondasunetara eta garapenera sarbidea izateko berdintasuna"³.

Kontzeptu horrek sexu-genero dibertsitatearen kontzeptua barne hartzen du, ez die-lako emakumeei erreferentzia egiten, oinarrian patriarkatua eta heterosexismoa dituzten

3 M. Lagarde, El feminismo en mi vida. Hitos, claves y topías, Horas y Horas, 2014

bazterkeriak jasaten dituzten beste pertsoneri baizik. Hala ere, ildo honek etorkizunean bilakaera izan behar du zeharkako ildo gisa txertatzeko. Era berean, ikuspegi intersektionalarekin osatzen da, hau da: “kontuan hartu behar dira generoak beste desberdintasun-iturri batzuekin dituen elkarguneak, hala nola dibertsitate funtzionalarekin, etniarekin, arrazalizioarekin, adinarekin, maila sozioekonomikoarekin, jatorriarekin, aniztasun sexogenerikoarekin, egoera administratiboarekin, etab”⁴.

Genero-berdintasuna Garapenerako Lankidetzaren Gida Planaren ildo estrategiko gisa ezartzeak lehentasuna ematea esan nahi du.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunera bideratutako xede nagusia duten proiektu eta programei, eta, ondorioz, hori lortzeko emaitzak eta ekintzak espezifikoak dituztenei (ekintza positiboak).
- Lankidetzeta-mota horrek emakumeen protagonismoa jasotzen du, eta erakundeetan eta mugimendu feministetan eta haien agendetan txertatzen du.

Era berean, sexuaren eta generoaren dibertsitatea ikusarazi eta txertatzen du lankidetzako ekintzetan, baita genero-eredu bitarra desafiatzen duten pertsonen eskubideen defentsa ere.

3.2.3 Jasangarritasun ekologikoa eta klimaren aldeko ekintza

Bizi garen munduan nagusi den ekoizpen- eta kontsumo-sistemak krisi ekologiko sakona sortu du, klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera, kutsadura, ekosistemen narriadura eta ondasun natural batzuen agortzea ezaugarri dituen. Era berean, ingurumenaren suntsipen horrek krisi soziala eragiten du, eta oso modu desberdinean eragiten du munduan zehar. Hala, gure planetako eremu txiroenetako pertsonak dira kaltetuenak.

Pertsonen eta ekosistema naturalen arteko mendekotasuna kontuan hartuta, bizitzaren jasangarritasuna da jokoan dagoena. Elikadura edo osasuna moduko oinarrizko eskubiak urratzen dira, besteak beste.

Aurreko Garapenerako Lankidetzaren Gida Planetan ez da jasotzen ildo estrategiko hori, baina bat dator arazo horren larrialdiarekin eta Gasteizko Udalak ingurumenaren eta jasangarritasunaren arloan egin duen ibilbide luzearekin. Ildo horrek hainbat arlotako jarduketak lehenesten ditu; hala nola ingurumenaren, naturaren eta biodibertsitatearen defentsa, babesa eta zaintza, baliabide naturalen kudeaketa eta klimaren aldeko ekintza.

Era berean, ildo hori sustatzeko ezinbestekoa da udalaren, sektoreko profesionalen, mugimendu ekologistaren eta mugimendu sozialaren gaitasun instituzionalak mobilizatzea, eta eragileen artean aliantzak eta sinergiak sortzea.

3.2.4 Tokiko botere demokratikoa eta udalgintza

Ildo estrategiko honek lankidetzeta bideratzen den herrialdeetako tokiko erakundeen gaitasunak indartzeko eta tokiko eremuan herritarren parte-hartzea sustatzeko jarduketak

4 Hara! IV. Berdintasun Plana

biltzen ditu. izan ere, herrialde askotan tokiko administrazio publikoek ez dute oraindik finkapen instituzionalik ezta garapenerako tokiko prozesuen buru izateko beharrezko baliabideak ere. Halaber, jakitun gara eremu geografiko batzuetan ez dagoela tokiko autoritaterik edo horiek ez direla demokratikoak.

Ildo horrek esan nahi du, alde batetik, tokiko erakundeak kontuan hartzen direla beren lurraldeetan gauzatzen diren lankidetzaproiektuetan, eta bereziki arduratzen direla beren plan eta ekimenekin sinergiak bilatzeaz eta, ahal den neurrian, haien gaitasunak indartzeaz.

Era berean, udala lankidetzabideratuta dagoen herrialdeetako tokiko instituzioekin lankidetzan aritzeko ateak zabaltzen ditu, udaleko langileen lankidetzateknikoaren edo esperientzien eta ezagutzen trukearen bitartez.

Lankidetzahori udaleko eskumenetan eta zerbitzu publikoen eskaintzarekin zerikusia duten alderdi estrategikoak eta teknikoak hobetzean oinarritzen da, eta hiria-hiria harreman zuzenen esparruan edo erakundeen arteko lankidetzaprogrametan aurreikusi daiteke, hala nola, GGKE-ek kudeatzen dituzten hainbat urteko proiektuen esparruan.

Gainera, komenigarria da lankidetzatekniko horiek, berez udal-langileen arteko elkartasuna sustatzen dutenak, elkartasun-harreman egonkorak sortzen edo indartzen dituzten herritarren kolektiboaren arteko zuzeneko harremanekin osatzea..

3.2.5 Migrazio-fenomenoak eta lankidetzahori

Garapenerako lankidetzahori ezin ditu alde batera utzi migrazio-fenomenoak, globalizazioaren ezaugarri nagusietako bat baitira. Gasteizen kasuan, 2022 hasieran, gure hirian beste herrialde batean jaiotako 38.330 pertsona bizi ziren, hau da, herritartasun globalaren % 15. Horietatik 33.482 (% 87) Ekonomia Lankidetzahori eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) Garapenerako Laguntza Batzordearen herrialde hartzaileen zerrendan dauden herrialdeetan jaiotakoak dira, hau da, Garapenerako Laguntza Ofiziala jasotzen duten herrialdeetakoak. Azken horietatik, % 51,74 emakumeak dira.

Gida Planean ildo estrategiko hori sartzeari hainbat arlotan esku hartzen jarraitzeko borondatearen ondorioa da:

- Jatorrizko herrialdeetan immigranteen elkarrekin edo kolektiboaren lankidetzarako ekimenak sustatzea eta haien komunitateetan garapenerako eragile gisa eta hiriko kolektibo gisa dituzten gaitasunak indartzen jarraitzea.
- Hezkuntzaren arloan, Gasteizko immigranteen jatorrizko herrialdeen errealitatea ikusaraztea eta migratzeko erabakien arrazoietan eta ondorioetan sakontzea.
- Hegoaldeko herrialdeetako pertsonekin eta kolektiboekin bizikidetzahori eta interakzioa hobetzeko eta herritar gisa parte hartzeko programekin lankidetzan aritzea, eta migrazioaren aurkako jarrera xenofoboaren eta aurreiritzien aurka egitea.
- Eta jatorrizko herrialdeetako gizarte-sailetako profesionalekin trukeak ahalbidetzea, immigranteekin erlazionatzen diren udaleko zerbitzuentzat erabilgarriak izan daitezkeen, kolektibo horri eta bereziki kolektiborik zaugarrienei eragiten dieten gako sozio-kulturaletan sakontzen duelako.

Era berean, ildo horrek behartutako migrazio-mugimenduekin zerikusia duten larrialdi-egoerak kontuan hartzea dakar eta pertsonak babesteko eta haien funtsezko eskubideak bermatzeko ekintzak babestea.

3.3 Zeharkako ildoak

Garapenerako Lankidetzaren Gida Planaren zeharkako ildoek Gasteizko Udaleko lankidetzako ekintzetan dauden ikuspegietara igortzen dute zeharka, eta galdera honi erantzuten diote: Zer ikuspegi daude presente udalaren lankidetzarako ekintzetan?

3.3.1 Eskubideen ikuspegia

“Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia” bi funtsezko ideiatan oinarritzen da:

- Garapenerako lankidetzaren ekintza guztiek giza eskubideak sustatu behar dituzte (Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta giza eskubideen nazioarteko beste tresnetan ezarritako moduan) programazioaren prozesuko fase guztietan.
- Garapenerako lankidetzak betebeharren jabeen gaitasunak hobetzeko ekarpena egin behar du, horiek bete ditzaten, eta eskubideen jabeen gaitasunak hobetu, horiek aldarrikatu ditzaten.

Horren lehenengo ondorioa hau da: “Pertsonak funtsezko eragileztat hartzen dira beren garapenean, eta ez ondasunen eta zerbitzuen hartzaille pasibotzat”. Giza eskubideetan oinarritzen den ikuspegiak “programazioaren jarduketa onak” dakartza.⁵

3.3.2 Genero-berdintasuna

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren moldaketarako martxoaren 3ko 1/2022 Legeak ezartzen du “Euskadiko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dutela politika eta ekintza guztietan” eta genero-ikuspegia txertatzea hone-la definitzen dute: “emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, aspirazio eta behar desberdinak sistematikoki kontuan hartzea, politika eta ekintza guztietan desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketa espezifikoak sustatzea, maila guztietan eta plangintzaren, gauzatzearen eta ebaluazioaren fase guztietan”.

Horregatik, lankidetzarako udal-politikek zeharka ere txertatu behar dute genero-ikuspegia (generoaren mainstreaminga).

Alde horretatik, alde batetik, Gida Planak lankidetzarako jarduketa guztietarako aplikagarriak diren generoaren gutxieneko eskakizunak indartzen ditu:

- Ezin dira inola ere emakumeen eta gizonen tratu-desberdintasunik oinarritu edo sortu, ezta emakumeen zuzeneko edo zeharkako diskriminaziorik eragin ere.
- Ezin dute desberdintasun-maila handiagoa sortu garatzen diren esku-hartze eremuan.

⁵ Xehetasun gehiagorako ikusi [Garapenerako lankidetzan giza eskubideak txertatzeko gida metodologikoa](#).

- Desberdintasuna murriztera edota gizon-emakumeen berdintasuna sustatzera bideratutako neurriak jaso beharko dituzte. Horien artean gutxienez eskatu beharrekoa da emakumeek proiektuetan eta programetan parte har dezaten bultzatzea, baita haien lanpostuetarako eta sortutako baliabideetarako irisgarritasuna bultzatzea ere.
- Izaera jarraituko ekintzetan, genero-ikuspegiaren txertaketarantz, aurrerapen zehatzen betekizun progresioa eskatuko da, ekintzak jarraitzeko baldintzatat.

Bestalde, proiektuek genero-inpaktu eraginkorra izan dezaten bermatzeko, beharrezkoak dira aztertzeko, parte hartzeko eta antolatzeko tresnak, eta nabarmentzekoa da generoaren inpaktua⁶. Funtsean hau egitea dakar:

- Genero-azterketak emakumeen eta gizonen presentzia orekatuari eta baliabideetarako sarbideari eta kontrolari, erabakiak hartzen parte-hartzeari, eta arau eta balio sozialen eraginari dagokionez esku-hartze arloan dauden genero-desberdintasunak identifikatzen ditu.
- Jarduketa hasi aurretik ebaluazioa edo azterketa egitea, emakumeen eta gizonen egoeraren gainean egon daitezkeen ustezko efektuak aurreikusteko.
- Inpaktua hobetzea, aurretiaz esku hartuz, balizko efektu negatiboa neutralizatzeko, edo hala badagokio, inpaktu positiboa indartzeko, moldaketak eta neurri zuzentzailak txertatuz.

3.3.3 Tokikoa-globala ikuspegia eta hegoaldeko ikuspegia

Klima-aldaketa, egiturazko pobrezia, desberdintasunak edo indarkeria matxistaren moduko fenomenoek planeta osoari eragiten diote. Testuinguru honetan, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko desberdintasunak edo bereizketak lausotu egiten dira, eta bazterkeria-gizarteratzea ardatza da esanguratsuena: munduko Hegoaldeak eta Iparraldeak deiturikoak sortzen dira.

Tokikoa-globala ikuspegiak presente izan behar du eta “sistemaren interdependentziaren, bidegabekerien eta desberdintasunen egiturazko arrazoen, bidegabekerien eta borroken tokiko inpaktuen eta inpaktu globalen, eta borroka eta erronka horien erantzunkidetasunaren gainean sakondu behar du herritar globalen ikuspegitik”⁷.

Ikuspegi hori lankidetzeta-jardueretan sartzeak gasteiztarrak gure hiritik haratago konpromititzeko ekintzak sortzea dakar. Horrek esan nahi du, zehazki, udaleko lankidetzarako jarduketetan hiriko kolektiboak inplikatzeko gutxieneko baldintzak ezartzea.

Hala ere, nolabaiteko arriskua dago ikuspegi hori hezkuntza-ekintzaren edo sentsibilizazio-ekintzaren eremuan ezartzeak Hegoaldea ikusezin bihurtzeko eta Hegoaldearen eta Iparraldearen artean dauden desberdintasun izugarriak alde batera uzteko, bereziki

⁶ Generoaren araberako inpaktuaren aurretiazko ebaluazioak. Prozesuaren azalpen-gida eta tokiko erakundee-tan txertatzeko diseinatu diren tresnak.

⁷ HABIAN.Eraldaketa sozialerako hezkuntza-estrategia.

pobrezia-mailari, gizarte-bidegabekeriaren mailari eta giza eskubideen urraketari dago-kienez. Hortaz, Lankidetzarako Gida Planarentzat, Hegoaldeko erreferentzia ezinbes-tekkoa da: oinarrizkoa da tokikoaren eta globalaren arteko lotura horiei eduki ze- hatza ematea, Hegoaldeko errealitateak ikusaraztea eta arazo horiek eraldatzeko lanean ari diren leku desberdinetako eragileen artean trukeak eta topaketak sus- tatzea.

3.4 Printzipio instrumentalak

Atal honek udal-lankidetzarako printzipio operatiboak jasotzen ditu, eta galdera honi erantzuten dio: Nola egingo dugu garapenerako lankidetzaz?

3.4.1 Herritarrek zuzenago eta berehala parte hartzea lankidetzan

Printzipio instrumental hau bideratuta dago hiriko pertsonen, kolektiboen eta erakunde- en (udala barne) esku-hartze eraginkorra eskatzen duten garapenerako eta elkartasunerako lankidetzaz-programak eta lankidetzaz-ekintzak aurrera eramatera. Horregatik, Gasteizko kolektiboen inplikazioa baldintzatuz jotzen da Udalak lankidetzazaren arloan egiten dituen jarduketetarako.

3.4.2 Lankidetzarako lurralde-ikuspegia

Mugatutako dimentsioengatik eta izaerarengatik, udal-garapenerako lankidetzaz mugatu- tako lurraldeetan kontzentratu behar da.

Bestalde, udalek kudeaketan duten esperientziarengatik, udal-lankidetzazaren indargune- tako bat garapena bideratuta dagoen herrialdeetan lurralde-ikuspegia sustatzeko duen gaitasuna da, eredu parte-hartzaileari eta aliantzei jarraituz, lurraldean dauden instituzioak eta eragileak erlazionatzeko eta arazoei erantzuteko koordinatzeko.

Halaber, udalak lankidetzazaren esku jar dezake bere lurraldeko eragileei dei egin eta mo- bilizatze gaitasuna, eta, hala, Hegoaldeko herrialdeetako eta Gasteizko eragileen eta kolektiboen erlazioak eta trukeak eraikitzea ahalbidetzen du.

Oro har, ikuspegi horrek inpaktu handiagoak sortzeko eta lankidetzaz iraunkorragoa eta horizontala indartzeko ekarpena egiten du.

3.4.3 Erakunde-arte aliantzak, sareak eta koordinazioa

Lankidetzazaren lurralde-ikuspegiak sareak eratzeko deia egiten du, lurralde-izaerakoak eta nazioz haraindikoak. Era berean, tokikoa-globala ikuspegiak Hegoaldeko eta Iparraldeko ekimen globalen arteko sinergiak ezartzen ditu, eta gai baten inguruan ekintza bateratua sortzera bideratutako estrategiak eta nazioarteko aliantzak sortzea ahalbidetzen du. On- dorioz, ahalegin eta estrategia bateratuak gehitzea ere Gida Planeko ildo estrategikoen printzipio instrumental eta egituratzailea da.

Sare horien lana sustatzeak zentzu berezia du ezarritako lehenetasun strategikoei eran- tzuten badiete, hiriko erakunde- en inplikazio handia baldin badaukarte eta bizi baldintzak

hobetzeko, desberdintasunak murrizteko edo giza eskubideak defendatzeko emaitza zehatzak lortzera bideratuta baldin badaude.

Halaber, funtsezkoa da lankidetzan diharduten gainerako erakunde publikoekin koordinatzea, hurbilen dagoen eremutik hasita, honako alderdi hauei lehentasuna emanez:

- lankidetzarako politiken koherentzia edo osagarritasuna,
- prozedurak harmonizatzea eta desburokratizatzea, bereziki dirulaguntzen deialdiei dagokienez,
- lankidetzarako programa bateratu batzuk abian jartzea.

3.5 Lehenetsitako sektoreak

Lankidetzarako erakundeen sektoreko espezializazioa dela eta, bai tradizionalena, bai eragile berriena, ezin da adostasunik lortu sektoreko lehentasunei dagokienez.

Hala ere, Udalaren lankidetzaren ibilbidea, udal-zerbitzuen lankidetzaren teknikorako aukera eraginkorrak eta zehaztutako ildo estrategikoak kontuan hartuta, lehentasuna emango zaie honako lankidetzaren sektore hauei, bai garapenerako lankidetzaren modalitatean, bai herritartasun globalerako hezkuntzaren modalitatean:

- **Giza** eskubideen babesa: giza eskubideen urraketen biktima izan diren pertsonen eta komunitateen babesa eta arreta eskaintzea, bai eta salatu eta herritartasun globalerako hezkuntzako ekintzen defentsa sustatzea ere.
- Genero-berdintasuna: emakumeen ahalduntzea edo gizon eta emakumeen berdintasuna xede nagusia duten jarduketak.
- Ura eta saneamendua: uraren eta/edo saneamenduaren sarbidea ahalbidetzen duten jarduketak garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleentzat.
- Gazteria: gazteen bizi kalitatea hobetzeko jarduketak, gaitasunak indartzea, autonomia sustatzea eta emantzipazio politiko, sozial eta kulturala xede duten jarduketak barne.
- Ekonomia sozial eta solidarioa: baliabideen kudeaketa parekidea eta jasangarria sustatzen duten jarduketak, zehazki, bidezko merkataritzarekin eta kontsumo arduratsuekin lotuta dauden ekimenak.

Herritartasun globalerako hezkuntza-modalitateen kasuan, herritarrei, udal-langileei eta jarduera-sektore zehatzei zuzendutako ekintzak hartzen dira kontuan, bai eta erosketa publiko arduratsuekin zerikusia dutenak ere, hala nola erosketetan eta udal-kontratazioetan bidezko merkataritzako produktuak txertatzea.

- Jasangarritasun ekologikoa: ingurumena eta ekosistemak defendatu eta babesteko jarduketak, biodibertsitatea eta natura-baliabideen kudeaketa barne.

Sektoreak lehenesteko hainbat modutara islatu daiteke, zehazki:

- Sektore horretako proiektuei puntuazio altuagoa ematea deialdien baremazioetan,
- Dirulaguntzen deialdietan atal espezifikoak sortzea,
- Egungo hitzarmenetan edo helburu-herrialdeetan erakundeen parte-hartzearekin dauden programa berrietan sektore horretako proiektuak identifikatu eta abian jar-tzea.

3.6 Gasteizko Udalean Garapenerako Politiken Koherentziari ekarpena egitea

Garapenerako Politiken Koherentzia udal osoari eragiten dion printzipioa da, baina zeha-tzago xehatzen da Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak koherentzia horri ekarpena egin diezaiokeen edo behar dion alderdi zehatzetan.

3.6.1 Garapenerako Politiken Koherentzia:

Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) honela definitzen du Garape-nerako Politiken Koherentzia (GPK):

Nazioarteko garapena-politikaren printzipioa da, eta kanpoko eta etxeko politiketan gara-penerako lankidetzaren helburuak kontuan hartzea da xedea, ziurrenik garapenean dau-den herrialdeetan eragina izango duten arloetan.

Neurri horretan, Garapenerako Politiken Koherentziak zuzenean lotzen du esku-hartzea-ren esparrua garapenerako lankidetzarekin.

GJHen 17.14 xedea eta garapen jasangarrirako politiken koherentzia

GJHen 17.14 xedeak “garapen jasangarrirako politiken koherentzia hobetzea” aipatzen du, eta ELGEk termino hauetan definitu du kontzeptu hori:

Estatuko eta nazioarteko politikak egiteko prozesuan garapen jasangarrirako dimentsioak integratzeko prozedura. Agenda 2030eko testuinguruko helburua Agenda 2030en aplikazio integratua sustatzea da, ekintza hauen bidez: (i) sinergiak sustatuz eta politika ekonomikoaren, sozialaren eta ingurumenekoaren sektoreetan etekinak maximizatuz; (ii) etxeko politikaren helburuen eta nazioartean aitortutako Garapen Jasangarrirako Helburuen arteko oreka bilatuz; eta (iii) politiken mugez gaindiko eta epe luzeko eraginak jorratuz, garapen bidean dauden herrialdeei eragiten dietenak barne⁸.

Kontzeptu nahiko zabala da, beraz, ELGEk Garapenerako Politiken Koherentziaren (GPK) kontzeptua mugatu egin du, eta nazioarteko dimentsiora xedatzen da.

Nolanahi ere, Garapenerako Politiken Koherentzia ez da garapenerako lankidetzarako beste modalitate bat, nazioarteko politikei eta erakundeen gobernantzari berari eragiten diote. Horrenbestez, udal-esparruan, ez dagokio soilik eta nagusiki Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuari.

28

Hala ere, udal-eskumenak kontuan hartuta, eta udalaren plangintza estrategikoaren esparruan, eta, zehazki, Tokiko Hiri Agendaren Ekintza Planean, Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak ekarpena egin behar die garapenean dauden herrialdeei zuzenean eragin diezaioketen udal-politiken Garapenerako Politiken Koherentziari, lau arlo zehatzetan gutxienez: erosketa publikoa, udaleko hezkuntza-ekintza – zentzu zabalean –, hiriko elkarbizitzarako politikak eta giza eskubideen defentsa.

⁸ ELGE Garapen jasangarrirako politiken koherentziari buruzko batzordearen gomendioa. ELGE/LEGAL/0381

3.6.2 Erosketa publiko arduratsua

Ekoizpen-prozesuak nazioartekotzeko eta komertzializatzeko egungo mailen ondorioz, kontsumitzen ditugun produktuen eta zerbitzuen zati adierazgarri bat garapenean dauden herrialdeetan ekoizten dira osorik edo partzialki, edo herrialde horietatik datozen lehengaiak dituzte. Espainian kontratazio publikoak Barne Produktu Gordinaren % 15 eta % 20 hartzen du, eta ez dago zalantzarik erosketa publikoak, tokiko erakundeek barne, eragin zuzena duela garapenean dauden herrialdeetan.

2022-2025 Gida Planak jarduketa hauek ezartzen ditu:

- Udaleko sailek eta zerbitzuek bidezko merkataritzaren produktuak eros ditzaten sustatzea.
- Eskuratutako ondasunen ekoizpenean eta merkaturatzean giza eskubideak eta LANE Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenak gehiago errespetatuko direla bermatzen duten klausulak sartzea kontratazio-pleguetan.

Zeregin hori lotuta dago Erosketa Publiko Arduratsu eta Jasangarriaren Gidalerro eguneratua onartzearekin, eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua jakitun da tokiko erakunde batek nazioarteko lan-baldintzekin zerikusia duten klausulak betetzen ote diren egiaztatzeko duen gaitasuna mugatua dela.

3.6.3 Udaleko hezkuntza-ekintza

Gida Planak nazioarteko ikuspegia eta, zehazki, hegoaldeko ikuspegia beste zerbitzu edo sail batzuetako hezkuntza-programetan zeharkako bihurtzen duten hainbat jarduera bil-tzen ditu. Ildo horretan sakontzeaz harago, Garapen Jasangarriko Helburuei ekarpena egiten dieten zeharkako hezkuntza-programak egituratzen diren heinean, Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua arduratuko da horiek nazioarteko ikuspegia eta hegoaldekoa izan dezaten zaintzeaz.

3.6.4 Kultur bizikidetzako eta kohesio sozialeko politikak hirian

Jatorrizko herrialdeetako kolektibo jakin batzuen kontaktuengatik, hiriko Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak aholkularitzako baliabideak edo prestakuntza identifika ditzake garapen bidean dauden herrialdeetatik datozen komunitateetako pertsonekin elkarreragina duten zerbitzuentzat, sailek beharra duten heinean.

3.6.5 Giza eskubideen defentsa

Udalak giza eskubideen arloan duen finkatutako ibilbidea dela eta, Garapenerako Lankidetzarako Zerbitzuak udaleko lankidetzak esku hartzen duen testuinguruetako giza eskubideen egoeraren berri emango du, eta nazioartean giza eskubideen defentsan dauden erakundeek balizko esku-hartzeetan ekarpena egingo du.



4 MODALITATEAK ETA PROGRAMAK



Gida Planaren arlo guztiak barne hartzeko, atal hau ELGEko Garapenerako Laguntza Batzordeak zehaztutako sektore handietatik edo modalitateetatik abiatuta antolatzen da, horiek baitira Euskadiko Lankidetzaren Publikoaren Ataria egituratzen dutenak. Horrek aukera emango du plana urteko memoriekin bateratzeko eta atarian Info@OD Garapenerako Laguntza Ofizialaren Informazio Sistemari datu kuantitatiboak aurkezteko, Udalerriaren eta Probintzien Espainiako Federazioaren bitartez.

Atariak ezartzen dituen modalitateak hauek dira:

- Garapenerako lankidetzaren
- Gizarte Ekintza eta Larrialdikoa
- Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza
- Sektorea eta beste batzuk indartzea.
- Plangintza eta ebaluazioa.
- Administrazioa eta kudeaketa.

Jarraian, 2022-2025 Gida Planak modalitate eta programa bakoitzean aurreikusten dituen ekintza zehatzen plangintza jasoko dugu.

4.1 Garapenerako lankidetzaren

32 Udalaren garapenerako lankidetzaren, lehenik eta behin, Dirulaguntzen Plan Estrategikoko “Garapenerako lankidetzaren ekimen eta proiektuentzako laguntza” ildoan dauden programak egiten dira. Beraz, programak bi emakida-modalitateen arabera antolatzen dira: deialdiak eta itunak.

4.1.1 Lankidetzarako deialdiak

Deialdietan diruz lagundutako lankidetzarako ekintzak garapen bidean dauden herrialdeetan egin beharko dira, hau da, ELGEren Garapenerako Laguntzarako Batzordeak egindako Garapenerako Laguntza Ofizialaren Onuradunen zerrendan agertzen direnetan.

Garapenerako lankidetzarako dirulaguntzen deialdiek ildo estrategikoei, sektoreko lehenitasunei, zeharkako ildo eta “Planeko alderdi estrategikoak” 3. atalean zehaztutako printzipio instrumentalei erantzungo diete.

Deialdien bitartez, hainbat proiektu laguntzea da asmoa. Proiektu horiek atal espezifikoetan definitzen dira eta urteko deialdi bakarrean edo hainbat deialdi bereizitan multzokatu ahal izango dira. Plana indarrean dagoen bitartean, atal hauek zabalduko dira hasieran:

Kateatutako Urteko Proiektuak (KU)

KU atala da pisu ekonomikorik handiena duena eta garapenerako lankidetzarako proiektuentzat da. Garapenerako lankidetzarako jarduketak bat hiru urteko zikloaren bitartez garatzen da, eta kateatutako proiektuetan egituratzen da.

2022an, aurreko hirurteko azken urtea onartu da. Ziklo berria 2023-2025 aldiari garatuko da.

Uraren eta Saneamenduaren Proiektuak (US)

US ekintzaren helburua garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleentzat uraren eta/edo saneamenduaren sarbidea ahalbidetzen duten jarduketak egitea da.

2022 eta 2023ko ekitaldietarako, deialdi honek Gasteizko udalaren ekarpenaz gain, AMVISAK dagoeneko onartu duen ekarpen gehigarria ere badu.

2022an amaituko da aurreko hirurteko zikloa. Ziklo berria biurtekoa izango da: 2023 eta 2024.

Tandem proiektuak

2022 eta 2023 urteetarako abian jarri den Tandem atalaren helburua GGKE-en eta erakundeen artean lankidetzan aritzeko proiektu pilotuak hautatu eta gauzatzea da, eta sektore batean espezializatutako ekonomia sozialekoak lehenetsiko dira, ahal dela jasangarritasun ekologikoarekin eta/edo giza eskubideekin lotutako arloetan lan egiteko.

Proiektu bat edo bi hautatu dira.

Proiektu Txikiak (PT)

PT atala urterokoa da. Baliabide gutxiago dituzten, baina hiritik proiektuarekin erlazio oso zuzena duten erakundeek sustatutako proiektu txikiak laguntzera bideratua dago.

4.1.2 Euskal Fondoa hitzarmena

Euskal Fondoaren lankidetzarako jarduketak herrialde oso gutxitan garatzen dira: Kuban, El Salvadorren, Guatemalan, Nikaraguan eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoan. Hala ere, erakundeak beste herrialde batzuk aztertzea erabaki du, Senegal batez ere.

Euskal Fondoa erakundearen lan-ildoak organo zuzentzaileek definitzen dituzte, hor-taz, ez daude Gasteizko Udalaren nahiaren mende soilik.

2022-2025 Gida Planak tresna horri ezarri dio hitzarmenaren esparruan egun duen konpromiso ekonomikoa mantentzea.

Halaber, "Aktual - Euskadi - Erdialdeko Amerika uraren eta saneamenduaren lankidetzarako erakundeen arteko programa (2021-2024)" programari bere ekarpen ekonomikoa egiten jarraitzeko konpromisoa hartu du Gasteizko Udalak. Ura Uraren Euskal Agentziak eta EAEko uraren eragile publikoek hartzen dute parte.

4.1.3 Lankidetzaprogrametako udalaren lankidetzak

Deialdien edo itunen atalen esparruan, hainbat udal-sailen lankidetzak izango da.

Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila	
Sailaren zerbitzuak	Saileko arloetako lankidetzaproiektuekin lotutako truke profesionalak.
Alkatetzaren eta Erlazio Instituzionalen Saila	
Gazteria	Gazteen trukea eta gazteei zuzendutako politiken arloko aholkularitza.
Berdintasuna	Genero-berdintasunaren proiektuekin zerikusia duten trukeak eta aholkularitza.
Lurraldearen eta Klimaren Aldeko Ekintzaren Saila	
Hainbat zerbitzu	Proiektuen jarraipen teknikoa.
Herritarren Babes Saila	
Udaltzaingoa	Prebentzioaren eta indarkeria matxistaren arretaren arloko profesionalen trukea.
Udal-enpresak eta erakunde autonomoak	
AMVISA	Uraren eta saneamenduaren proiektuen berrikuspen teknikoa

4.1.4 Aurrekontuen adierazleak

Planaren hasierako fasean egingo diren lankidetzarako jarduketan dimentsioari buruzko orientazio zehatzagoa izateko, hurrengo taulan jaso ditugu deialdien edo itunen proiektuetako aurrekontuen adierazle batzuk.

Aurrekontuen adierazleak		
Deialdia edo ituna	Gehieneko zenbatekoa proiektuaren eta urtearen arabera (€)	Urteko gastu osoa ⁹ (€)
Kateatutako urteko proiektuak (azken urtea: 2022)	100.000,00 €	970.000,00 €
Uraren eta saneamenduaren proiektuak (azken urtea: 2022)	120.000,00 €	390.000,00 € ¹⁰
Kateatutako urteko proiektuak 2023-2025	120.000,00 €	1.200.000,00 €
Uraren eta saneamenduaren proiektuak 2023-2024	130.000,00 €	390.000,00 €
Tandem proiektu-pilotuak 2022 eta 2023	196.000,00 €	196.000,00 €
Hitzarmenak		
Hitzarmena		2022ko zenbatekoa
Hitzarmena Euskal Fondoarekin		207.000,00

4.1.5 Ekimen berriak

2022 eta 2023an, deialdiaren eta itunen aurreikusitako zikloek tarte gutxi uzten dute aurrekontuan ekimen berriak egiteko. Hala ere, 2024tik aurrera, programa berriak jarrri ahal izango dira martxan. Programa horien zehaztapena proiektuen garapenaren balorazioaren arabera izango da batez ere, eta, era berean, erakundeen barneko arloan sor daitezkeen ekimenen arabera. Hortaz, plana idazteko garaian ez dira alderdi horiek gehiago zehaztu behar.

⁹ Adierazitako zenbatekoa borobildua edo gutxi gorabeherakoa da.

¹⁰ Zenbatekoaren barruan daude AMVISAREN ekarpen ekonomikoak.

4.2 Ekintza humanitariora eta larrialdikoa

Ekintza Humanitariora bezain esparru zabalean, esku-hartzeek zenbateko ekonomiko altuak behar dituzte, eta gure udalak dituen gaitasunekin eta aurrekontuaren bolumenarekin ezin dira jarduketa esanguratsuak egin.

Hala ere, ibilbide luzea duten eta Gasteiz bezalako hiri batentzako zentzua duten lankidetzarako bi tresna mantentzen ditugu:

- RASDeKo Lagunen Arabako Elkartearekin dugun hitzarmena (Saharako hitzarmena),
- Eta Larrialdietarako Arabako Funtsa (LAF), Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan.

4.2.1 Ekintza humanitariora: Saharako hitzarmena

Saharako herriari eta, bereziki, Tindufen (Aljeria) dauden errefuxiatuei etengabeko laguntza eman die Gasteizko Udalak eta adostasun politiko erabatekoa izan du beti. Gasteizko herritarrek Saharako herriarekin duten elkartasunaren ibilbideari erantzuten dio horrek.

Kanpamenduetako errefuxiatuen egoerak bilakaera izan du 46 urteotan, baina ingurunearen baldintza desatseginek, okupazioaren ezohiko egoerak, Saharako herriak jasaten duen erbesteak eta gatazka konpontzeko aurreikuspen faltek behartzen dute laguntza humanitariora eta elkartasun politikoa mantentzea.

RASDeKo Lagunen Arabako Elkartearekin sinatutako Saharako Hitzarmena ekintza humanitariora bideratzen da hein handi batean, eta, bereziki, elikagaien laguntzara. Kanpamenduetan garatzeko proiektuen proiektu asimilagarri batzuk ere barne hartzen ditu, emakumeei eta gazteei zuzenduak, eta administrazioari laguntzekoak. Tarteka Marokok okupatzen duen Mendebaldeko Saharako giza eskubideak defendatzeko ekintzak ere egiten ditu. Gainera, Gasteizen egiteko sentsibilizazio- edo komunikazio-ekintzak ere kontuan hartzen ditu.

2022-2025 Gida Planak hau ezartzen du tresna horrentzat:

- Konpromiso ekonomikoen egungo egoera mantenduko du¹¹.
- Elkarreak 2023-2025 aldirako ekintza-ildoak zehazteko prozesua.

4.2.2 Larrialdia: Larrialdietarako Arabako Funtsa

Larrialdietarako Arabako Funtsa (LAF) GBHn dauden larrialdietarako esku-hartzeentzako laguntza ekonomikorako mekanismo espezifiko da. Arabako Foru Aldundiaren tresna bateratua da, eta 2005etik dago martxan. LAF:

- GGKE-ek eta beste erakunde batzuek ondo baloratutako larrialdietako esku-hartzei berehalako laguntza emateko mekanismo azkarra da.

¹¹ 2022an, udalak RASDeKo Lagunen Elkartearen hitzarmenari egin zion ekarpena 320.000,00 eurokoa izan da.

- Erakundeen arteko lankidetzaren adibide erraz eta emankorra da.
- Udaleko eta aldundiko lankidetzarako gaitasunetatik gure lurraldean dauden GGKE-ek egindako larrialdietako jarduketei erantzuteko aukera ematen du.

2022-2025 Gida Planak hau ezartzen du tresna horrentzat:

- Arabako Foru Aldundiaren hitzarmenaren esparruan, 2024ra arte dago indarrean egungo¹² konpromiso ekonomikoa mantentzea.
- 2024an hitzarmena ebaluatzea, berriro eta hobetzeari begira.

4.3 Herritartasun globalerako hezkuntza

Gasteizko Udalak herritartasun globalerako hezkuntzarekin herritarren elkartasuna sustatzen dela uste du.

Garapenerako lankidetzaren Espainiako legearen aurreproiektuak “garapen jasangarriko eta herritartasun globalerako hezkuntzari” Europar Batasunak erabiltzen duen izendapenarekin egiten dio erreferentzia. Aldiz, Euskadiko legearen aurreproiektuak “eraldaketa sozialerako hezkuntza” kontzeptua erabiltzen du. Ikus daiteke, alde batetik, “garapen jasangarriari” egindako erreferentziak jasangarritasunaren ingurumeneko dimentsioari eragiten diola gehien bat, eta beste udal-sail batzuk hezkuntzaren arloa ere lantzen dutela. Bestalde, “eraldaketa soziala” terminoak “globala” edo “nazioartekoa” eta batez ere “hegoaldea” baino harago doan eremu askoz ere handiagoa jorratzen du, eta arlo horretan kokatzen da garapenerako lankidetzari. Gasteizko Udalak uste du Herritartasun Globalerako Hezkuntza izendapena gehiago hurbiltzen dela Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuaren berezko hezkuntza-jarduketaren arlora. Kontsiderazio horiek udalaren arlotik hezkuntza-ekintza integratuagoa eta koordinatuagoa egiteko gonbidapena dira nolana ere.

Udalak hezkuntzan sakon esku hartzeko duen gaitasuna mugatua da; beraz, planaren hezkuntzako dimentsioa hezkuntza ez formalean eta herritarren sentsibilizazioan oinarritu behar da gehiago. Horretarako, bere estrategia honako hauek dira: jardueraren propioen urteko programazio murriztua finkatzea, gai jakin batzuetan berriazko hezkuntza-jardueraren bat garatzea erakundeekin hitzarmenak eginez, eta hainbat udal-zerbitzuekin lankidetzaren aritzea, herritartasun globalaren edukiak zeharka txertatuz programazio sektorialetan edo publiko espezifikoari zuzendutakoetan.

Dirulaguntzen deialdiek egindako lankidetzarako proiektuekin lotuta dagoen sentsibilizazioarekin bat egiten dute bereziki.

¹² 2022an, udalak Larrialdietako Arabako Funtzari egin zion ekarpena 135.000,00 eurokoa izan da.

4.3.1 Zerbitzuaren berezko programazioa

Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak zuzenean antolatutako programak edo ekintzak dira, eta Zerbitzuak berak edo erakunde/enpresek kudeatu eta gauzatu ditzakete, kontratazioko prozedura publiko baten bidez. Programa horietako batzuek, gainera, beste udal-zerbitzu batzuen laguntza dute.

“Fokuan” jardunaldiak

Orain arte programa horren bi edizio egin dira, eta nazioarteko gaurkotasuneko gai zehatzak sakon jorratzea da helburua, tokikoa/globala ikuspegitik eta Hegoaldeko begiradarekin. Horretarako, hiru edo lau egunetan pilatutako jarduerak antolatzen dira.

Publikoarengan inpaktua sortzea eta herritarrak sentsibilizatzea da xedea, bai eta gai jakin batzuetan espezializatuta dauden pertsonen, kolektiboen eta erakundeen arteko trukea sustatzea ere.

Kontratazio publikoaren prozeduraren bitartez kudeatzen da.

Programa horri jarraipena ematea proposatu du udalak, eta urte bakoitzerako nazioarteko gaurkotasuneko gai bat aukeratuko da.

“Giza Eskubideak eta Sorkuntza Artistikoa” programa

2013az geroztik, Monterhermoso Kulturunearekin urtero egiten den deialdi bateratua da, eta giza eskubideekin inplikazioa duen erakunde batek eta sorkuntza artistikoaren arloko eragile batek edo batzuek batera egindako sorkuntza artistikoaren proiektu bat hautatzen dute. Hautatutako proiektua abenduaren 10 inguruan aurkeztu eta ekoizten da, kontratu bidez.

Antzeko terminoetan jarraitzea da proposamena.

“Kidez Kide” programa

Gazteria Zerbitzuarekin batera garatutako hezkuntza-programa da, hezkuntza formalaren arloan, eta, egun, DBHko laugarren mailako ikasleei dago zuzenduta. Ibaguéko ikastetxeen parte-hartzea du. Gasteiz Kolonbiako udalerrri horrekin senidetuta dago.

Programa kontratazio publikoaren prozeduraren bitartez kudeatzen da eta ikasturte osoa hartzen du.

Ikastetxeen eskariaren arabera, programa ikastetxe gehiagotara zabaltzeko edo adin-tartea handitu daiteke, baita beste herrialde batzuekin lankidetzan aritu ere, elkarteren batek herrialde horretako ikastetxe batzuk mobilizatzeko gaitasuna baldin badu.

Uraren Nazioarteko Eguna

Gasteizko Udalarentzat uraren eta saneamenduaren lankidetzak duen garrantzia dela eta, eta azken urteotan egin diren jarduketak jasoz, 2023tik aurrera, AMVISaren Futura Planarekin lankidetzan, programazio berri bat jarriko da abian martxoaren 22rako, Uraren Nazioarteko Egunerako. Diruz lagundutako uraren eta saneamenduaren arloko lankidetzaproiektuak kudeatzen dituzten erakundeek laguntzen dute.

Programazio horren barruan ura izateko giza eskubidea, egindako lankidetzako proiektuak, uraren kudeaketa jasangarria, uraren kontsumoa eta erabilera arduratsua bezalako gaiak egongo dira.

Egin beharreko jarduerak urtero definituko dira eta askotarikoak izan daitezke: jardunaldi teknikoak, ikastetxeetako ikasleei zuzendutako jarduerak, sentsibilizatzeko jarduerak, etab.

Uraren eta saneamenduaren lankidetzaren jarraipena kontuan izanda, Uraren Nazioarteko Eguna urteroko ekitaldia bihurtzea da xedea.

Nolanahi ere, garapenaren eta sor daitezkeen proposamenen arabera, jarduketa horiei jarraipena ematea eta programa berriak abian jartzea komeni ote den baloratuko da.

4.3.2 Hitzarmenak

4.3.2.1 Gasteizen Bidezko Merkataritza eta Kontsumo Arduratsua sustatzea

Udalak bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeko ibilbide luzea du 2009tik, hirian espezializatuen dauden GGKE-ekin lankidetzan, eta erosketa publikoan bidezko merkataritza ere txertatzen du. Zehazki dago jasota hori 2015eko Erosketa Publiko Sozialki Arduratsu eta Jasangarrirako Gidalerroan. 2022an, Gasteiz “Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiria” izendatu dute.

Udalak bidezko merkataritzarekin eta kontsumo arduratsuarekin duen konpromisoa berretsi zuen 2021ean onartutako adierazpen instituzionalarekin.

ZENTZUZ sarearekin hitzarmena

2020an, udalak eta ZENTZUZ Sareak (Bide Bidean, Medicus Mundi, Mugarik Gabe eta SETEM Hego Haizea elkarteek osatzen dute) jarduteko protokolo orokorra sinatu zuten, herritarrei, jarduera-sektore zehatzei eta udal-langileei informatzeko, hezteko eta sentsibilizatzeko jarduketak egiteko, eta 2020-2023 aldian bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeko.

Protokolo horrek urteko dagozkion hitzarmenak sinatzea aurreikusten du, eta bertan definitzen dira ekintza zuzenak eta horiek gauzatzeko esleipen ekonomikoa. Dirulaguntza urtero kudeatzen du sareak esleitutako erakundeak.

Erakunde berriek bat egin dezakete hitzarmenarekin, jarduketa-protokoloari atxikitzeko dokumentua sinatuz.

Ildo horrek honako hau aurreikusten du:

Hitzarmenaren azken urterako (2023) laguntza ekonomikoaren maila mantentzea¹³.

Urteko hitzarmenen emaitzen eta inpaktuen ebaluazioa egitea.

Estatuan Bidezko Merkataritzaren aldeko Hirien nazioarteko sarean parte hartzea eta trukitzea.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak Bidezko Merkataritzaren aldeko hirien talde eragilean hartu du parte eta lankidetzaz indartzeko asmoa du.

40

4.3.2.2 Afrika-Gasteiz hitzarmena

Afrika-Gasteiz hitzarmena

2022 hasieran, Gasteizen Afrikako herrialde batean jaiotako ia 12 mila pertsona bizi dira, hau da, udalerrri osoko biztanleriaren % 4,5.

2017tik, Gasteizko Udala lankidetzan aritu da Afrikako elkarteekin, maiatzaren 25ean ospatzen den Afrikaren Egunaren harira jardueren astea antolatzeko.

2022an lehen aldiz sinatu da hitzarmena Unión y Apoyo del Hablante Pular Haaly Pular elkartearekin eta hirian Afrikako jatorria duten hainbat herrialdek babestu dute; hitzarmenaren asmoa Gasteiz eta Afrikaren arteko loturak indartzea da, Afrikako errealitateak eta arazoak ikusarazteko, elkarte eta kolektibo horien gaitasunak indartzeko eta hiriko beste eragile batzuekin elkarreragina izateko ekintzak sustatuz, bai eta udal-zerbitzuaren profesionalen eta Afrikako herrialdeetako gizarte-arloetako profesionalen arteko trukeak sustatuz ere.

Hitzarmen horrek Elkarbizitzaren eta Aniztasunaren Zerbitzuaren lankidetzaz izango du.

¹³ 2022an, udalak BM/KArri egin dion ekarpena 90.000,00 eurokoa izan da.

4.3.2.3 Oporrak Bakean

AFANIS Saharako Haurren Harrera Familien Arabako Elkartearekin hitzarmena

Urtebeteko hitzarmena da eta 2006tik egin dute, Oporrak Bakean programa¹⁴ ahalbidetzeko. Programa horrek Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren Saharako haurrak hartzen ditu udako hilabeteetan. Osasun-arloko helburuak ditu alde batetik (elikadura eta osasuna aldi baterako hobetzea) eta sentsibilizazioa eta kulturen arteko elkarbizitza sustatzea bestetik.

Zoritxarrez, Saharako gatazka ez da konpontzen eta Tindufeko kanpamenduetan duten egoerak okertzen jarraitzen du. Ondorioz, arrazoituta dago hitzarmenarekin jarraitzea.

Hitzarmen hori Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan egiten da, eta aldundiak ere sinatzen du hitzarmena AFANISekin.

4.3.3 Giza eskubideen arloan lankidetzara Arabako Foru Aldundiarekin

Arabako Foru Aldundiak hala eskatuta, egun jarduteko mekanismo edo programa bat lantzen ari gara, Arabako kooperazioa presente dagoen testuinguruetan giza eskubideen defentsan ari diren pertsonen eragiten dieten kasuak salatze eta haien babesteko alertak edo esku hartze publikoak aktibatze.

Mekanismo hori jarduteko hitzarmen edo protokolo bateratuan zehaztu ahal izango litzateke, Gida Planaren ildo estrategikotik batez ere.

4.3.4 Beste zerbitzuetako programa batzuekin lankidetzara

Jarraian zerrendatuko ditugu Gasteizko Udalarekin lankidetzarako zeharkako elkarlana egiten duten edo egitea aurreikusten duten beste zerbitzu eta sailtako programak.

¹⁴ Euskadiko Lankidetzara Publikoaren atarian, "sektorea indartzeko modalitatearen" barruan dago, sailkatzen zaila baita programa.

Zerbitzua	Kolaborazioak
Gizarte Politiken, Adinekoen eta Hauren Saila	
Saileko zerbitzuak:	Gasteizko komunitateen jatorrizko herrialdeetan gizarte-arloan eta sailarentzat interesekoak diren gaietan jarduten duten profesionalekin trukerako urteroko saioa egitea, prestakuntza-programaren esparruan. Saio horiek beste sail batzuetako profesionalentzat zabalik egon daitezke.
Adinekoak	BIZAN sarearen programazioan urteko jarduera bat txertatzea.
Hautzaroa eta Familia	HNTZP - Haur eta Nerabeen Tokiko Planarekin lankidetzaren eta sailen arteko organo teknikoan parte hartzea.
Alkatezaren eta Harreman Instituzionalen Saila	
Gazteria	Gazte Planaren (2022-2025) tokikoa-globala ildoaren esparruko lankidetzaren, gazteen arteko trukeetan oinarritzen da. Ildo hori gazteentzako ekimenak sustatzera bideratuta dauden lankidetzaren proiektuekin dago lotuta gehien bat, eta 2022tik Ibagué hirian, Kolonbian, gauzatzen da, baina udalak lankidetzaren ibilbidea duen beste eskualde batzuetara ere zabaldu ahal izango da.
Berdintasuna	- Ahalduzko Feministarako Eskolen programazioan interes komuneko jarduerak txertatzea. - Hegoaldeko herrialdeetako emakumeen elkarteak eta elkarte feministak beste lekutakoekin trukatzeko artikulazio bateratua. - Berdintasunerako eta indarkeria matxistak prebenitzeko ekintzak egiteko lankidetzaren erakundeetan, tokikoa/globala ikuspegia-ekin. - 3ren arteko zinema. Hainbat zerbitzuren artean koordinatutako zinemako programazioa (Bizikidetzaren eta Aniztasuna, Herritarren parte Hartzea eta adinekoak sailek ere parte hartzen dute).
Bizikidetzaren eta dibertsitatearen	Lankidetzaren "Elkarbizitzaren ikastea" programan.
Herritarren Partaidetza, Gardentasuna eta Gizarte Etxeen Saila	
Herritarren partaidetza	Herritartasunerako Eskola Irekiaren egitarauan urtean interes komuneko jarduerak txertatzea.
Gizarte-etxeak	"Udako jolasak: jolasak hiriko auzoetako kaletan" programan bidezko merkataritza txertatzea, bidezko merkataritzarekin lotutako produktuak eta jolas korporatiboak eskaintzeko.
Hezkuntza eta Kultura Saila	
Hezkuntza	"Gasteiz Hiri Hezitzailea" proiektuarekin lankidetzaren.
Enpresak eta erakunde autonomoak	
Ingurumen Gaietarako Ikastegia	IGIren egitarauan urtean interes komuneko jarduerak txertatzea.
AMVISA	Uraren Nazioarteko Egunaren harira Futura Planarekin lankidetzaren hezkuntza formalaren eta sentsibilizazioaren arloko jarduerak.

4.3.5 Dirulaguntzen deialdiak

Arlo horretan, dirulaguntzen deialdiek edo atalek Gasteizko herritarren artean elkartasuna sustatzeko helburuei erantzuten diete. Horretarako, kalitate- eta inpaktu-ekintzak lehenesten dira, ez nahitaez kuantitatiboki, baizik eta ekimen zehatzak aktibatzeari dagokionez. Helburu horrekin, erakunde batek baino gehiagok edo sare edo multzo baten esparruan egindako proiektuak sustatuko dira.

Deialdira aurkezten diren proiektuek plan honetan definitutako zeharkako ildoetara erantzun beharko diete: genero-berdintasuna eta tokikoa/globala ikuspegia eta Hegoaldearen begirada izan beharko dute.

Herritar guztientzako sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuetarako deialdiak bi proposamen mota diruz lagundu ahal izango ditu:

- Lankidetzarako proiektuekin lotutako informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak, oinarrian dituen eskubideetan ikuspegia jarrita.
- Hegoaldeko herrialdeen errealitatea ezagutzeko eta sakontzeko aukera ematen duten ekintzak, arazo globalak jorratzen dituztenak eta herritarren artean konpromiso solidarioarako jarrerak sustatzen dituztenak.

4.3.6 Komunikazioa eta informazioa

2016-2019 Lankidetzarako Gida Planaren ebaluazioak gabezia nagusienetako gisa aipatzen zuen garapenerako lankidetzan egiten denaren, lortutako emaitzen eta ikusten diren askotariko jarduketara onen inguruko informazio eta komunikazio urria.

Alderdi hori hobetzeko, Gida Plan berriak estrategia komunikatiboa zehaztea aurreikusten du, egindako jarduketak ezagutarazten eta jarrera eta ekimen solidarioak sustatzen laguntzen duten zeharkako tresna gisa balio izateko. Estrategia hori koherentea izan behar da komunikazio-politika orokorrarekin eta udaleko gardentasun-irizpideekin.

Hedapen-lan horretarako, erdigunean jarri behar da hiriko lankidetzarako eta elkartasunerako erakundeek beste udal-zerbitzu batzuekin egiten duten elkarlana. Zehaztu behar da lankidetzarako proiektuekin eta programekin zuzenean lotuta dauden Gasteizko kolektibo horiei zuzendutako sentsibilizazioa horietaz arduratzen diren erakundeek egingo dutela; aldiz, publiko zabalagoari zuzendutako informazioa eta komunikazioa udalaren erantzukizuna izango da.

Efizientzia komunikatibo handiagoa lortzeko eta eskuragarri dauden baliabideen erabilera eraginkorra egiteko, hiriko jardueren eta ekitaldien sustapena uztartu egingo da lankidetzarako programen edo proiektuen testuinguruan sortutako ikus-entzunezko produktuen hedapenarekin, sentsibilizazio-kanpainekin, giza eskubideen kanpainekin, etab.

Jardun komunikatibo horren ezaugarrien ondorioz hasierako bi dokumentu sortu behar dira:

- Komunikaziorako gidalerroen dokumentua. Barneko eta kanpoko komunikazioa hartuko ditu eta funtsezko elementuak garatuko ditu: komunikaziorako helburu nagusiak, komunikatu nahi den informazio-mota, aliantza estrategikoak, zuzendutako publikoa, kanalik egokienak eta abian jartzeko beharrezko baliabideak.
- Kanpoko eragileentzako adierazpenen dokumentua, eta komunikazio-piezak egiteko beharrezko materialen ezaugarriak, hedatzeko eskuragarri dauden kanalen arabera.

Halaber, urteko plan operatiboa egingo da 2023tik aurrera.

4.3.7 Aurrekontuen adierazleak

Termino orokorretan, garapenerako lankidetzarako aurrekontuaren gutxienez % 10 bideratuko da herritartasun globalerako hezkuntzara.

Planaren hasierako fasean egingo diren herritartasun globalerako hezkuntza-jarduketan dimentsioari buruzko jarraibide zehatzagoa emateko, hurrengo taulan daude jasota programa egonkorretako zenbatekoak, batez ere 2023ra begirakoak, komunikazio-kanpainen kostuak edo ekintza puntualak kontuan hartu gabe.

Aurrekontuen adierazleak	
Egitaraua	Zenbateko adierazgarria
Kidez Kide programa	33.000 €
Fokuan programa	23.000 €
“Giza Eskubideak eta Sorkuntza Artistikoa” programa	25.000 €
Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuen hitzarmena	90.000 €
Afrika-Gasteiz hitzarmena	20.000 €
Oporrak Bakean hitzarmena	17.000 €
Biztanleria globalarentzako sentsibilizaziorako eta hezkuntzarako dirulaguntzen deialdiak	60.000 €

4.4 Sektorea indartzea

Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariak “Sektorea indartzea” modalitatean eta sektorearen gaitasunak indartzearekin lotutako beste hainbat jarduerak biltzen ditu, zentzu zabalean ulertuta (GGKEak, beste alderdiak edo erakunde publikoak), bai eta sailkatzeko zailak diren beste batzuk ere. Gida Planaren arabera, modalitate honetan gaitasunak indartzeko jarduerak soilik sartuko ditugu¹⁵ eta herritartasun globalerako lankidetzaren edo hezkuntza-programen esparruan dagoeneko aipatu diren udaleko sailekin edo beste erakunde batzuekin ez ditugu lankidetzak errepikatuko.

4.4.1 Hitzarmena Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen hitzarmena 2002tik sinatu dute etenik gabe eta eta hirian jarduten duten GGKE gehienak biltzen dituen eta haiei laguntza ematen dien erakunde gisa Euskadiko GGKEen Koordinakundea indartzeko borondateari erantzuten dio. Hitzarmenaren xede nagusia Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen Arabako ordezkari nagusiaren lana babestea da eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundea osatzen dutenen sentsibilizazio-, komunikazio- eta mobilizazio-kanpaina bateratu jakin batzuei laguntzea.

Euskadiko GGKEkren ezaugarrietako bat da Euskal Autonomia Erkidegoan plan estrategiko eta plan operatibo komunak dituela, eta bere funtzionamendua, jarduerak eta egitura zazpi erakunderekin sinatzen dituen hitzarmenaren mende dagoela % 90ean: Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziarekin, Euskadiko hiru foru aldundiekin eta hiru hiriburuetakako udalekin.

2022-2025 Gida Planak hau ezartzen du tresna horrentzat:

- Euskadiko GGKEkren hitzarmenaren esparruan, egungo ¹⁶konpromiso ekonomikoa mantentzea.
- GGKE-entzako prestakuntza-ekintzetarako eta zerbitzuetarako laguntza indartzea, bai eta sentsibilizazio-, komunikazio- eta mobilizazio-ekintza edo -kanpainetarako ere.
- Euskadiko GGKE Koordinakundeari laguntza ematen dioten gainerako erakunde publikoen koordinazioa indartzea.

¹⁵ Gida Planak “Biztanleria osoarentzako hezkuntza” modalitatean jasotzen du Saharako haurrak hartzeko hitzarmena, eta Atariak “Sektorea eta beste batzuk indartzea” modalitatearen barruan sartzen du.

¹⁶ 2022an, udalak Euskadiko GGKEkri egin dion ekarpena 24.000,00 eurokoa izan da.

4.4.2 Erakunde arteko koordinazioa.

Dagoeneko zehaztu den programa jakin batzuetako lankidetzaz gain, udalak erakundeen arteko lankidetzarako hiru lehentasun-arlo izango ditu:

- Arabako Foru Aldundiarekin,
- Euskal Fondoarekin,
- autonomia-mailako erakunde arteko organoekin, gaur egungoekin edo etorkizuneko Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Legearen ondoriozkoekin.

Nolanahi ere, 2022-2025 Gida Planak Gasteizko Udalak hiru erakunde maila horietan parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko duen prestasuna jasotzen du, lankidetzarako programen eta herritartasun globalerako hezkuntzaren artikulazioa hobetzeko eta ekimen berriak sustatzeko.

4.4.3 Prestakuntza-jarduerak

2022-2025 Gida Planak hau ezartzen du tresna horrentzat:

- Erakundeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak, proiektuak deialdietara aurkezteari eta subentzionatutako proiektuen jarraipenari dagokienez.
- Garapenerako lankidetzara- edo hezkuntza-programetan parte hartzen duten udal-langileei zuzendutako prestakuntza-ekintzak.
- Garapenerako Lankidetzarako Zerbitzuko langileei zuzendutako ekintzak.

46

Hitzarmenen esparruan prestakuntza-ekintzak egin ahal izango dira Euskadiko GGKE-Krekin, Euskal Fondoarekin, Bidezko Merkataritza eta Kontsumo Arduratsuekin eta Afrika-Gasteizekin, bai eta erakunde arteko esparruan ere.

4.4.4 Garapenerako lankidetzaren Elkargunea

Garapenerako Lankidetzaren Elkargunea Gasteizko Udalaren partaidetza-organoa da garapenerako lankidetzaren arloan. Organo horren parte izan nahi duten erakundeek eta udaleko alderdi politikoek osatzen dute. Era berean, lankidetzarako elkarguneak bi ordezkari ditu hiriko Batzorde Sozialean.

Elkarguneak, alde batetik, udalaren gardentasunari ekarpena egiten dion organoa eratzen du, udaleko aurrekontuen, egindako ekintzen eta Gida Planaren garapenaren berri ematen zaiolako; eta, bestetik, eztabaidarako organoa.

Lankidetzara-sektorearen ezaugarriak oso profesionalizatuta daudenez, modalitate edo tresna zehatzak, hala nola deialdiak, definitzeko orduan parte hartzea lan-ordutegian garatzen diren lantaldeetan egiten da maiz.

4.5 Administrazioa eta kudeaketa

Atal honetan txertatzen dugu garapenerako lankidetzara bideratuko den udal-aurrekontuaren ehunekoaren kalkulua, bai eta lankidetzarako proiektuen kudeaketak dakartzan administrazioko kostuen kontsiderazioak ere.

4.5.1 Garapenerako lankidetzarako udal-aurrekontua

Vitoria-Gasteizko Udalak konpromisoa hartzen du urtero Udalaren diru-sarrera arruntan % 0,7 eta % 1 bitarteko garapen-lankidetzarako aurrekontu bat onartzeko (hau da, udaleko diru-sarreraren 1 ataletik 5era). Hala, urte batean lankidetzara bideratutako ehunekoa eta zenbatekoa handitzen badira, ez da hurrengo urteetako aurrekontuaren zenbatekoa murriztuko, abian jartzen diren programen egonkortasuna bermatu ahal izateko.

Balio absolutuetan, 2022an onartu den garapenerako lankidetzaren aurrekontua 2.669.907,40 eurokoa izan da, hau da, udal-aurrekontuaren % 0,7.

Lankidetzarako aurrekontua onartzeko ehuneko hori kalkulatzeko:

- “Lankidetzarako aurrekontuaren” barruan sartzen dira dirulaguntzen (gastuen 4. atala) eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak egindako kontratazioen (gastuen 2. Atala) sailak, eta baztertu egiten dira Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuko langileen kostuak (gastuen 1. atala).
- Udal-aurrekontua udalaren ohiko diru-sarreraren batura da (Diru-sarrerei buruzko 1-5 atalak).

Urteko memoriari eta benetan egindakoaren informazioari dagokienez:

- Egindako sailak soilik zenbatuko dira.
- Urteko benetako diru-sarrerei egingo zaie erreferentzia, hau da, diru-sarreraren 1-5 ataletako “abenduarien 31ra arte aitortutako eskubideei”.

Euskadiko GGKE Koordinakundearen irizpidea da tokiko erakundeek GLOra bideratu duten ehunekoa kalkulatzea, garapenerako lankidetzara bideratutako gastu osoaren eta udalaren finkatutako aurrekontu osoaren zatidura gisa. Kalkulu hori egiteko beharrezko datuak udalaren webgunean eta Euskadiko Lankidetzaren Publikoaren Atarian lor daitezke.

4.5.2 Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuaren giza baliabideak

Gasteizko Udaleko Lanpostuen zerrendan, Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua goi mailako teknikari batek eta erdi mailako hiru teknikaririk osatzen dute.

4.5.3 Proiektuen kudeaketa

4.5.3.1 Kudeaketaren kostuak

Lankidetzarako proiektuak egiteko kudeaketa administratiboa egin behar du eremuan proiektua gauzatzen duen erakundeak, proiektuaren erakunde kudeatzaileak eta udalak berak.

Azken urteotan, proiektuen kudeaketa konplexuagoa bihurtu da, batez ere erakunde publikoen esku-hartze orokorren zorrotasun handiagoagatik justifikazioak fiskalizterako garaian. Gasteizko Udalaren kasuan, zorrotasun horrek eskatzen diren ziurtagiria areagotzea ekarri du.

Lankidetzarako proiektuak kudeatzeko, halaber, kudeaketaren kostuak edo “zeharkako kostuak” daude, erakunde onuradunaren gastu orokorren eta administrati-boen zati proportzional gisa definituta, eta subentzionatutako jarduerari zuzenean egotzi ezin zaizkion arren, beharrezkoak dira hori egiteko. Horiek dira, esaterako, erakundea mantentzeko gastuak (energia elektrikoa, telefonoa, gasa, ura, alokairua, garbiketa eta aholkularitza), gastu informatikoak, mantentze-lan orokorrenak, segurtasunekoak, ikuskapenekoak, kontabilitatekoak, monitorizatzekoak, sistematizatzekoak eta koordinatzekoak.

Kostu horiek bai erakunde kudeatzailearengan, bai eremuan gauzatzeaz arduratzen den tokiko erakundearen gain erortzen dira, eta ekarpena egiten du erakundeen egituraren eta funtzionamenduaren jarraipena ahalbidetzeko. Batez ere, erakunde horietako gehienek berezko gaitasun finantzarioa oso mugatua dutelako eta lankidetzarako dirulaguntzekiko mendekotasun oso handia dutelako. Gida Plan hau indarrean dagoen bitartean, kudeaketaren gastu horiek deialdietan eta hitzarmenetan aurreikusitako mailatan mantentzea aurreikusten da.

4.5.3.2 Justifikazioaren modalitateak

Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek “Dirulaguntzen justifikazioak” oinarriaren oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera eta ezarritako epeen barruan justifikatu beharko dituzte.

Garapenean dauden herrialdeetan egindako ekintzen justifikazioa arautzen duen esparrua ekainaren 16ko 794/2010 errege Dekretua da, nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituena, eta, zehazki, “Publizitate eta lehia printzipioen mende dauden garapenerako nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzak eta laguntzak” izeneko II. Tituluko, “Dirulaguntzen kudeaketa eta justifikazioa” III. Kapituluko, “Dirulaguntzen eta laguntzen justifikazioa” 3. Atala.

Justifikatzeko ohiko sistema “justifikazio-kontua, gastuen egiaztagiria aurkeztuta” izango da, 794/2010 Errege Dekretuko 36. artikuluan aurreikusitako terminoetan.

4.5.3.3 Kudeatzeko eta justifikatzeko prozeduren berrikusketa

Administrazioen artean dauden irizpideen desberdintasunak direla eta, GGKE eta erakunde kudeatzaileek tresna eta formulario desberdinak erabili behar dituzte, proiektua diruz laguntzen duen erakundearen arabera, edo are gehiago, hainbat erakundek finantzatutako proiektuen kasuan. Horren ondorioz, aldarrikapen historikoa sortu da lankidetzan aritzen diren erakundeen prozedura administratiboak homogeneizatzeko, baina orain arte ez da halakorik gertatu.

Bestalde, Gasteizko Udalak ez du oraindik dirulaguntzak kudeatzeko plataforma egoirik, eta horrek zailtasun asko sortzen ditu udalaren egoitza elektronikoaren bitartez eskaerak eta dokumentazioa aurkeztu eta proiektuak kudeatzeko garaian. Alabaina, plataforma hori 2023an ezartzea dago aurreikusita.

Horrenbestez, 2023 eta 2024 urterako aurreikusita dago GGKEkin eta sinplifikatzeko xedearekin, alde batetik, dirulaguntzen deialdietako proiektuen kudeaketan erabiltzen diren tresnak, ereduak eta formularioak berrikustea eta, bestetik, dirulaguntzak justifikatzeko modalitateak eta eskakizunak berrikustea. Horretarako, udalak esku-hartze orokorra egingo du.

Halaber, gainerako instituzio publikoei kontsultatuko zaie prozedura horien berrikuspena koordinatzeko aukera, homogeneizaziorako aurrerapausoak emateko.

4.6 Plangintza eta ebaluazioa

Ondo bideratutako eta kalitatezko lankidetzak egiteko politiketan zein programa edo proiektuetan baliabideak modu eraginkorren erabiltzeko eta inpaktuak neurtzeko ezinbestekoa da plangintzari, jarraipenari eta ebaluazioari baliabide ekonomikoak, denbora eta ahalegina eskaintzea.

Gasteizko Udalak apustu argia egiten du hainbat urtetako proiektuen alde eta bere lankidetzarako tresna nagusietan txertatzen ditu proiektuentzako kalitatezko planifikazioa eta formulazioa, eta horien inpaktu handiagoa ahalbidetzen duten mekanismoak. Mekanismo horiekin formulazioak, plangintzak eta ebaluazioak egin ahal izateko baliabide ekonomikoak aurreikusi behar dira.

Baliabide finantzarioez gain, eskumena duen arloetako udal-gaitasun teknikoak ere baliabide baliotsua dira proiektuak aurretik hautatu eta identifikatzeko, eta baita jarraipena eta ebaluazioa egiteko ere.

Helburua da ebaluazioek eta plangintzek esku hartzen duten eragileek ikasteko balio ahal izatea, eta ondorioak sozializatzea. Halaber, ezinbestekoa da jarduketan bertatik bertarako jarraipena indartzea.

4.6.1 Proiektuen zikloak, aurretiazko hautaketa eta formulazioa

Hainbat urtetako proiektuak hiru arrazoi nagusirengatik lehenesten dira: inpaktu handiagoak lortzen dituzte, hiriko kolektiboan artean eta esku hartzen duten eragilean artean elkartasunezko eta trukeko erlazioak eraikitzeak aukera ematen dute, eta proiektuen kudeaketa errazten dute alde guztientzat.

Proiektuen kalitatea eta inpaktuarekiko kezka ondoz ondo, horiek ondo ezartzeko prozedurak ezartzen dira. Horretarako, deialdietan, proiektuak hautatzeko prozedura estandarrak hiru fase izango ditu:

- Proiektuak aurrez hautatzea laburpen-dokumentu batean oinarrituta, hori baita ondo onduta dagoen proiektuaren ideia laburpena. Dokumentuak Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak ebaluatuko ditu. Deialdiaren hurrengo faseetan onartutako proiektuak hautatuko dira. Lankidetzarako hainbat urtetako proiektuen kasuan, dirulaguntza bat eskatu ahal izango da egiteke dauden azterketa teknikoak eta/edo formulatzeko lanak egiteko.
- Aurretik hautatutako proiektuak behin betiko formulatzea. Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuaren laguntza eta berrikuspena izango du, eta, hala bada, udalako beste zerbitzu batzuen laguntza ere. Horretarako, batzorde mistoak egingo dira erakunde eskatzaileen eta Gasteizko Udalaren artean.
- Behin betiko hautaketak eta deialdiaren ebazpena. Aurretik hautatutako proposamenen behin betiko formulazioentzako fasea. Dokumentuak Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak ebaluatuko ditu eta proiektu teknikoak eskumena duten zerbitzu teknikoek.

50

Aurretik hautatzeko sistemak onartzeko aukera gehiago dituzten proiektuak eraikitzeak aukera ematen du eta, hala, nabarmen murrizten da hartzaileen artean aurreikuspen funsgabeak sortzeko eragozpena, hainbat eragilerek aliantzak sor daitezke eta formulazioan inbertitutako lan-karga murriztu egiten da.

Gida Planaren aldirian zehar, hasitako proiektuen zikloak amaituko dira, gehienak 2020koak, eta deialdien edo hitzarmenen proiektuen ziklo berriak egingo dira. Aurrezko zehaztutako ditugu horiek. Halaber, beharrezkoa izango da, balorazioaren arabera, 2024an uraren eta saneamenduaren proiektuen aurretiazko hautaketa berria egitea, eta 2025ean, lankidetzarako proiektuen hurrengo zikloa osatuko duten proiektuen aurretiazko hautapena egitea.

Proiektuak formulatzeko lanak amaitzeko baliabide ekonomikoak jarraipena eman nahi zaien dirulaguntzen edo hitzarmenen kargura izango dira.

Hurrengo taulan zehaztu ditugu planaren aldiei eragiten dieten zikloak, bai eta aurreikusitako formulazio-lanak aurretiaz hautatzeko eta amaitzeko prozesuak ere:

Proiektu-zikloak eta aurre-hautaketako prozesuak 2022-2025 aldian

Zikloa eta eragiten dien aurrekontuen ekitaldiak

Aurretzako hautaketa eta identifikazioa

2022an gauzatzen ari diren hainbat urtetako zikloak

Jarduteko protokoloak eta bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuaren hitzarmenak 2020-2023

Jarduteko protokoloa eta Saharako hitzarmenak 2020-2023

Larrialdietarako Arabako Funtsaren hitzarmena 2021-2024

Kateatutako urteko proiektuen zikloa 2020-2022

Uraren eta saneamenduaren proiektuen zikloa 2020-2022

Jarduteko protokoloa eta Euskal Funtsaren hitzarmenak 2022-2025

Aurreko Gida Planean eginak

2022an egina

2023tik aurrera hasteko proiektuen zikloak

Uraren eta saneamenduaren proiektuen zikloa 2023-2024

Aurretzako hautaketa eta identifikazioa (2022ko deialdia)

Kateatutako urteko proiektuen zikloa 2023-2025

Aurretzako hautaketa eta identifikazioa (2022ko deialdia)

Tandem proiektu-pilotua¹⁷

Aurretzako hautaketa eta identifikazioa (2022ko deialdia)

2026-2028an egin beharreko proiektuen zikloak¹⁸

Aurretzako hautaketa eta identifikazioa (2025eko deialdia)

Baieztatzeko dauden zikloak eta zehazteke daudenaldiak

Senegalgo erakundeekin egiteko erakundeen arteko programa

2022an aurretzako azterketa egitea

Ibagué hitzarmena (2024tik aurrera)

2024ko identifikazioa (bi erakundeek baieztatzeko dago)

¹⁷ 2022 eta 2023 ekitaldietako dirulaguntzak, eta 2023 eta 2024an egitekoak

¹⁸ Hurrengo Gida Planaren denbora-esparruan egin beharrekoak:

4.6.2 Proiektuen jarraipena

Proiektuen jarraipenaren modalitate nagusia diruz lagundutako erakundeek txostenetatik edo memoria teknikoetatik abiatuta egiten dena da, diseinatutako ereduak jarraituz. Proiektuekin jarraitzeko edo kateatzeko metodologiaren ondorioz, beharrezkoa da berrikustea txosten horiek ahalik eta azkarrenak direla, garapena ondo baloratu ahal izateko.

2023an, aurreikusita dago dirulaguntzak kudeatzeko online plataforma edo aplikazioa ezartzea, hasiera batean hitzarmenentzat. Hortaz, txostenetatik abiatuta egindako jarraipenaren modalitateak eta instrumentuak egokitu egin beharko dira.

Bestalde, ezinbestekoa da hainbat proiekturen eta jarduteko testuinguruen ezagutza hurbilagoa izatea. Beraz, Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak edo abian dauden proiektuetan esku hartzeko sektorean eskumena duen beste udal-zerbitzu batek urtean behin berrikusi beharko du gutxienez.

4.6.3 Proiektuen eta programen ebaluazioa

Ebaluazioak prestakuntza-prozesu gisa ulertu behar dira, ez emaitzen fiskalizazio huts gisa. Horregatik, beti hartu beharko dira kontuan ekintza solidarioaren prozesua, eta baldintzak eta testuinguru espezifikoa. Lehentasunezkoztat jotzen da ebaluazioak egitea, baldin eta ebaluazioak ez badira mugatzen balioestera proiektuek aurreikusitako ekintzak gauzatu dituzten ala ez, baizik eta neurtzen badute zer eragin izan duten hartzaileengan, haien bizi-baldintzetan, eskubideetarako irispidean edo gaitasunetan. Alde horretatik, ebaluaziorako funtsezko elementua zehaztutako genero-baldintzak eta -inpaktuak betetzea da.

Ohartzen gara egindako proiektuen kopurua eta banaketa geografikoa dela eta, ezinezkoa dela egindako proiektu guztien inpaktuak ebaluatzea. Hortaz, bi estrategiaren alde egin dugu.

Alde batetik, 2023an hasiko diren lankidetzarako zikloei dagokienez, proiektu bakoitzean adierazle nagusi bat definituko da, eta, beharrezkoa bada, bigarren adierazle bat, proiektuaren helburuen irismenaren balorazio orokorra jaso ahal izateko.

Bestalde, urtero proiektu edo programen kopuru txiki bat sakon ebaluatuko da. Hori egiteko, lankidetzarako proiektuen kanpoko ebaluazio bat kontratatuko da gutxienez urtean. Ebaluazioak zehazteko irizpideek egindako inbertsioaren zenbatekoa, udalaren lankidetzarako proiektuaren sektorearen garrantzia eta esperientziari erantzuteko edo hitzarmenari jarraipena emateko aukerak uztartuko dituzte.

Lehentasunez, inpaktuaren osteko ebaluazioak egingo dira proiektuen amaierako inpaktua baloratzeko, baina uneko ebaluazioak egin ahal izango dira proiektuaren garapenak berrikusketa edo berrorientazioa eskatzen badu. Halaber, proiektu soilagoen proiektu txikien kasuan, egiaztapen errazak egin ahal izango dira.

Hirian egiten diren hezkuntzako jarduketan eta horien inpaktuaren ebaluazioa egiteko kanpotik kontratatu ahal izango da edo udal-erakundeekin batera egin.

Hainbat ikuspegi metodologiko erabiltzeko zabalik dago (aldaketaren teorian oinarritutako ebaluazioa, itzulera sozialaren ebaluazioa, etab.), ebaluazioaren xedeetara hobe-to egokitzen direla ikusten bada.

Egindako ebaluazioek lan-saioak edo mintegiak ekarriko dituzte, emaitzak eta irakaspenak sozializatzeko helburuarekin.

Proiektuen edo programen ebaluazio hauek egitea aurreikusten da:

Proiektuen ebaluazioak aldian zehar		
Urtea	Ebaluatutako proiektuak edo hitzarmenak	Iruzkina
2022	Ginean egindako hainbat proiektu	Kanpoko ebaluazioa.
2022-2023	Afrika-Gasteiz hitzarmena	Balorazio parte-hartzailea
2023	ZENTZUZ sarearekin hitzarmena, Gasteizen Bidezko Merkataritza eta Kontsumo Arduratsua sustatzeko.	Urteko hitzarmenen emaitzen eta inpaktuen ebaluazioa, lan-ildo horri jarraipena nola eman eta, hala badagokio, jarduteko protokolo orokor berria nola formulatu zehazteko.
2023	Euskadiko GGKE Koordinakundearen hitzarmena	Modalitatea zehazteke
2023	Saharako hitzarmeneko proiektu jakin batzuk	Kanpoko ebaluazioaren barruan proiektuaren jarraipena identifikatu ahal izango da.
2023-2024	UKS atala (Urteko kateatutako sentibilizazioak 2020-2022)	Deialdiaren atal horren balorazio parte-hartzailea, hobetzeko helburuekin.
2024	Hainbat urtetako bi proiektuen amaierako ebaluazioa (2021-2023 zikloa)	Kanpoko ebaluazioa. Ebaluatu beharreko proiektuak ondoren zehaztuko dira.
2024	Tandem atalaren ebaluazioa (2022-2023)	Proiektu bat edo bi, 2022ko atalaren ebazpenaren arabera.
2025	Euskal Funtseko hainbat proiektu.	Kanpoko ebaluazioa

4.6.4 Gida Planaren jarraipena eta ebaluazioa

4.6.4.1 Gida Planaren jarraipena

Aurreko urteko memoria aurkeztuko zaio urtero garapenerako lankidetzaren Elkargu-neari, eta Gida Plana bete den jakiteko balorazio laburra izango du.

Elkarguneak bere balorazioa garapenerako lankidetzaren arloan eskumena duen udaleko Batzorde Informatiboari eman ahal izango dio.

4.6.4.2 Gida Plana egiaztatzea eta egokitzea

Udaleko legegintzaldi berriaren hasierarekin batera, 2023ko bigarren seihilekoan, Gida Planaren barruan dauden edukiak berrikusi eta behar bada egokitzeko ariketa egingo da, eta garapenerako lankidetzaren Elkarguneak parte hartu ahal izango du.

4.6.4.3 Gida Planaren ebaluazioa eta adierazleak

2025ean amaierako ebaluazioa egiteko idazkaritza tekniko bat kontratatzea aurreikus-ten da.

Planaren ebaluazioan gutxienez hau sartu beharko da:

- Modalitatearen arabera aurreikusitako ekintzak bete diren.
- Aurrekontuen adierazleak (modalitatearen, eragileen, helmugaren, sektorearen eta abarren arabera).
- Planaren inpaktu orokorrera hurbiltzea ahalbidetu beharko luketen 4.6.3 adierazi-tako proiektuen adierazle nagusiak.
- Egindako proiektuen edo programen ebaluazioen ondorioak.

Ebaluazioak inplikaturako eragileen iritzia jaso beharko ditu, GBHkoenak barne.